

## Kultura

Kurutzia ga ikastolako 40 ikaslek 'Fig konparsillaren asmakizun mundiala' eta 'Klink' antzezlanak taularatuko dituzte gaur eta bihar > 13

**AUTOEN  
GEHIGARRIA**



## Ikergazte, ikerlari gazte euskaldunen plaza

Euskal Herriko 200 ikerlarik hartu dute parte, asteen, Ikergazte kongresuan, Durangoko Landako Gunean. Ainhoa Diez, Itsasne Bustillo, Iraultza Unzueta eta Nerea Mandaluniz ekimen horretan parte hartu duten Durangaldeko lau ikerlari gazte dira. Ikergazteren bidez, lanean zer egitasmo lantzen dabiltzan azaldu ahal izan dute, euskaraz. Izan ere, gero eta gehiago dira azterketa zientifikoak euskaraz egiten dituzten ikerlariak. > 2-3



**hitz**  
liburudenda

artekalea, 14 durango  
946 810 776  
[info@hitzliburudenda.com](mailto:info@hitzliburudenda.com)



Aste honetan Hitzek gomendatzen dizu:



**HELDUENTZAT**  
BOBBY SANDS, MARTXA  
BATEN LEHEN NOTAK  
Denis O'Heam (2015)



**UME ETA GAZTEENTZAT**  
ERROTONDAN JUELTAKA  
Leire Bilbao  
eta Eider Eibar (2015)



**MUSIKA**  
ZURE AURREKARI  
PENALAK  
Anari (2015)

**Chimeneas**  
Cerámicas  
**MACOBER**  
Sanitarios

**MACOBER**  
Tronperri kalea, 1 DURANGO  
Zeramika eta gresa

### Durango > 4

3. mailako azterketari planto egiteko deia egin dute Durangon

### Zornotza > 6

36ko gerran hildakoak gogora ekarriko dituzte asteburuan

### Durangaldea > 9

Durangaldeko 300 argazki zahar jarri ditu ikusgai Gerediagak

### Mañaria > 10

30 postugaz osatutako azoka prestatu dute domekarako

**Herririk herri**

# Ikerlari gazte euskaldunen erakusleiho izan da Durango, Iker gazte kongresuagaz

Gero eta gehiago dira ikerketak euskaraz idazten dituzten gazteak; lan hori bistaratu gura du UEUK



Landako Gunean egindako Iker gazte kongresuan 200 ikerlarik parte hartu dute.

gazteak dira aurkeztu direnak, tesia egiten edo lerro berriak zabaltzen dabiltzanak. Baina harrituta geratu naiz, nahiko kalitate onekoak direlako”.

Ibarraren ustez, beharrezkoak dira horrelako kongresuak euskarazko ikerkuntza sustatzeko. Kontatu duenez, azken urteetara arte, euskarazko ikerketa hizkuntzalaritzara mugatuta egon da, batez ere.

Ibarra bera ere ikerkuntzan dabil, energia berriztagarrien inguruko ikerkuntza talde batean; itsasoko olatuen indarra hobeto gestionatzeko azterketa bat egiten dabil. Ikerkuntzak herrialdeen garapenean daukan garrantzia nabarmendu du: “Ikerkuntza bertan egin,

**DURANGO** Markel Onaindia Askotan esan izan da herri batek aurrera egin gura badu, ikertu egin behar duela. Bada, Euskal Herrian makina bat ikerlari dabil lanean. Gainera, gero eta gehiago dira euren azterketa zientifikoak euskaraz idazten dabilzan gazteak. Ikerlari gazte eta euskaldunen lan hori bistaratzeko asmoz, Iker gazte kongresua egin dute Durangoan, Udako Euskal Unibertsitateak antolatuta. Eguaztenean hasi eta gaur eguerdira arte 200 bat ikerlarik parte hartu dute Landako Gunean egindako aurkezpenetan.



**“Harrituta geratu naiz, ikerketak nahiko kalitate onekoak direlako”**

GABRIEL IBARRA

Iker gazte kongresuko batzorde zientifikoan parte hartu du Gabriel Ibarra EHUko irakasle elorriarrak, ingeniari buruzko informazioa posterretan ipini dugu. Lanaren laburpen bat ikusi ahal izan da.

bertan geratu, eta produktu eta jarduera berriak bertan garatu; hori da aberastasuna sortzeko modu bakarra”. Horren adibide dira Iker gazten parte hartu duten Durangaldeko ikerlariak.

**Itsasne Bustillo**

Abadiño, 27 urte

**Biokimika ikasi ostean, medikuntza eta biologia molekularrean barneratu da Itsasne Bustillo, Abadiñora bizitzen etorritako gueñestarra. EHUren eta CSICen arteko talde mixto batean dabil lanean.**

**Zelulen inguruko proiektu batean zabil lanean. Zer helburu daukazu?**

Heriotz zelularrean inplikaturik dauden proteinen familia bat aztertzen du gure taldeak. Ni BOK

proteinagaz lanean nabil, eta ikusi dut, zeluletan heriotza eragiteaz gainera, mitokondrioan (zelula barneko organulu bat) morfologia aldaketa bat eragiten duela. Heriotz zelularra garrantzitsua da, zelulak normalean hil egin behar direlako prozesu normalak mantentzeko. Minbiziaren estiloko gaixotasun batzuetan, zelulak ez dira behar bezala hiltzen. Horregatik, oso prozesu garrantzitsua da zelulak zelan dauden erregulatuta ikastea, gero botikak garatu ahal izateko. Gure ikerketaren kasuan, zelulak behar baino gehiago hiltzen dira.

**Lana aurkeztu beharrean, poster bat ipini duzu kongresuan. Bai. Aurkezpenez aparte, erakusketa bat egon da, eta hainbat proiekturi buruzko informazioa posterretan ipini dugu. Lanaren laburpen bat ikusi ahal izan da.**

**Zelan ikusi duzu kongresua euskaraz izatea?**

Orain arteko kongresuetan ingelesez edo gaztelaniaz egin izan da. Horrela, euskara bigarren mailako hizkuntza gisa geratzen da. Nire tesia eta beste lankide batena nazioarte mailakoak izan dira, baina, ingelesez gainera, euskaraz idatzi ditugu.



**“Garrantzitsua da zelulak zelan dauden erregulatuta ikastea, gero botikak garatu ahal izateko”**

**anboto**

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta  
Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa:  
946 232 523

Publizitatea:  
946 217 902  
publi@anboto.org

2015eko maiatzaren 15a,  
13. urtea - 589. alea

**Zuzendaria:**  
Jone Guenetxea Arrinda.  
**Administrazio burua:**  
Itziar Belar Zubizarreta.  
**Administrazioa:**  
Miren Abasolo Txabarri.  
**Publizitatea:**  
Goretti Alonso Armendia,  
Itxaso Esteban Urriaga,  
Joseba Derteano Bilbao,  
Markel Onaindia Txabarri,  
Amaia Ugalde Begoña,  
Martxel Zubia Arrinda,  
Eneko Azurmendi Barrena.  
**Maketazioa:**  
Eider Alberdi Bengoa.  
**Zuzentzailea:**  
Jon Ander Urkiaga Egizazu.

**Laguntzaileak:**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza  
diruz lagundutakoa



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du





“*Familia osoari eragiten dion gertakaria da langabezia*”

#### **Ainhoa Diez**

Durango, 23 urte

**Gizarte Langintza ikasketa eta Familiekin Esku-hartzea masteerra ikasi ostean, langabeziak familiengan daukan eragina aztertzen dabil, doktoretza tesian, Ainhoa Diez.**

#### **Zertan datza zure ikerketa?**

Langabeziak familian daukan eragina aztertzen nabil, baina, batez ere, langabeziaren ondorioei zelan egiten dioten aurre ikusi gura dut. Arlo ekonomikoaz aparte, lanak funtzio psi-

kosozial batzuk ditu: nortasun bat ematen dizu, estatusa, talde batean kokatzen zaitu... Funtzio horien galerak buru-osasunean eragina dauka; autoestimuan, adibidez. Depresioekin ere lotu izan da. Bestalde, hartu-emanetan ere eragiten du, zure osasuna besteengan proiektatzen duzu eta. Zure inguru hurbilena familia da, eta, horregatik, familia osoari eragiten dion gertakaria da langabezia.

#### **Zergatik langabezia?**

Gugandik hurbil dagoen gait bat aztertu gura nuen –denok ezagutzen dugu langabezia

dagoen jendea–, eta, batez ere, alde positiboa landu nahi nuen: Zelan aurre egin egoera latz bati? Norengandik jasotzen dute laguntza? Lagunengandik edo Gizarte Zerbitzuetatik? Zer laguntza mota ematen dute? Diru-laguntzekin nahikoa da edo sostengu emozionala behar da?

#### **Zer balorazio egiten duzu kongresuaz?**

Nire ustez, kongresu hau berezia da, ikerketan gabiltzan euskaldunoi ahotsa ematen digulako. Gure lanak geurea den hizkuntzan ezagutarazteko aukera ematen digu.

#### **Iraultza Unzueta**

Durango, 27 urte

**Fisika eta Elektronika ikasketak egin, master bat amaitu, eta orain doktoretza egiten dabil Iraultza Unzueta. EHuko ikerketa talde bategaz dabil lanean, interes teknologikoko materialen propietateak aztertzen.**

#### **Zer proiekturen berri eman duzu Ikerketa kongresuan?**

Teknika nuklearraren bidez, interes teknologikoko materialen propietateak aztertzen

ditugu. Gero, propietate horiek forma solidoen izaeran daukaten eragina aztertzen dugu. Nik, adibidez, memoria formadun aleazioen aurkezpena egin dut. Temperaturaren arabera, trantsizio bat edukitzen dute, eta atomoak desberdin antolatzen dira. Beroa edo lur magnetiko bat aplikatuta, material hori handitu edo txikitu dezakezu. Baina, materiala oso desordenatuta badago, guztiz askatzen da. Horregatik, desordena hori zer puntutaraino den kritikoa ikertzen gabiltza. Bestalde, isolatzaile topologikoen inguruan ere egin dut berba.

#### **Zertarako balio dezake zure ikerketak?**

Aplikazio teknologikoetan erabili ahal diren materialen propietate funtzionalak optimizatzeko balio dezake.

#### **Artikulu zientifikoak euskaraz argitaratzeak zer onura ekarri dezake?**

Euskarazko literatura zientifikoa sortzea garrantzitsua iruditzen zait, dibulgaziorako erabilgarria izan ahal delako; institutuko ikasleentzat, adibidez. Normalean, ingelesez argitaratzen dira artikuluak, eta euskaraz ezer gutxi dago.



“*Euskarazko literatura zientifikoa sortzea garrantzitsua iruditzen zait*”



“*Larreak, goldatu eta aldatu beharrean, zelan kontserbatu aztertzen gabiltza*”

#### **Nerea Mandaluniz**

Abadiño, 42 urte

**Neiker Tecnaliako ikerlaria da Nerea Mandaluniz. Bere ikerketak nekazaritzan eta ingurumenaren eragina eduki dezake.**

#### **Artalde batez belarraren hobekuntza ikertzen zabilta, ezta?**

Lurzoruaren kalitatea txarto dagoen lekuetan, leheneratzea da helburua. Gutaz gainera, Urduñako eta Orreagako beste talde bi ere badabilta. Larreak, goldatu eta aldatu beharrean,

zelan kontserbatu aztertzen gabiltza, karbono fijasle handiak direlako eta biodibertsitate oso handia dutelako. Kontserbatzeko, ereite prozesu zuzenak egiten ditugu, espezie iraunkorak ereinda eta etxeko konpostagaz soilik ongarrituta. Gero, larratze sistema bi probatzen gabiltza: librea eta birsorkuntza bidezkoa. Azken horregaz belar gehiago sortzen dela ikusi dugu, esparru eta argi berbera eduki arren. Horrela, artzainak belar gutxiago erosi beharko du. Belarraren kalitatea mantentzen da, eta ardiek berdin produzitzen dute. Baina karbono gehiago

hartzen du; beraz, ingurumenari begira ona da.

**Zelan ikusten duzu kongresua?** Askotan AEBetara begira egoten gara, eta hemengo fakultateren batean egon ahal da behar duzuna. Gainera, jendea ezagutzea aukera ona da.

#### **Eta euskarari dagokionez?**

Guri pasatzen zaiguna da artzainekin tratua euskaraz edukitzen dugula, baina gero idatzizko lan gehienak ingelesez edo gaztelaniaz doazela. Horregatik, Ikerketa kongresua sekulako aukera da.



**Danontzako Herri bat**

**“Iurretaren Hazkunderako 70 konpromiso”**

**IURRETA EKINEZ EGINA**

[www.iurretapnv.wordpress.com](http://www.iurretapnv.wordpress.com)

[www.facebook.com/iurreta.eginez](https://www.facebook.com/iurreta.eginez)

[@iurretoeginez](https://twitter.com/iurretoeginez)



## 3. mailako azterketari planto egiteko deia zabaldu dute

Hezkuntza Plataformen Topaguneak agerraldia egin du Durangon



Zapatuan, Hezkuntza Plataformen Topaguneak egindako agerraldia.

**DURANGO** Markel Onaindia Zapatuan, Euskal Herriko Hezkuntza Plataformen Topaguneak agerraldia egin zuen Durangon, Lehen Hezkuntzako hirugarren mailako azterketari planto egingo diotela esan, eta horretarako deia zabalteko.

Nafarroan hasi dira azterketa hori egiten, eta Samuel Pasandin bozeramaileak azaldu du planto egiten dabilzala: "Hamaika izan dira azterketa

egin ez duten ikastetxeak eta ikasleak, eta hamaika izan dira planto egin duten familiak". Eusko Jaurlaritzari egotzi dio "isilean" azterketaren exekuzioa prestatzen ibiltzea: "Jakin dezala Uriarte andreak [Hezkuntza sailburua] gu ere antolatzen hasiak garela eta proba hauei planto egingo diegula".

Pasandinen ustez, Espainiako LOMCE legea aplikatu dela ziurtatzen duen seinalea da

hirugarren mailako azterketa. Horretaz gainera, Ingurunea ikasgaia bitan zatitu dela, erlijioa "lehentasunezko ikasgai" bihurtu dela, "erabat euskalduntzen ez duten ereduak" mantendu direla eta erabaki organo gorenetako erabakitzeko eskubidea murriztu dela esan du. LOMCE lege arrotza dela ere adierazi du Pasandinek, eta hirugarren mailako ebaluazioa "inposatua" izan dela.

## Maristak ikastetxeko Julen Guerra matematika lehiaketan bosgarren

Azken fasean, Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako 270 ikaslek parte hartu dute



Julen Guerra, sari banaketa ekitaldian.

**DURANGO** M.O.

Bizkaian, Araban eta Gipuzkoan antolatzen den Udaberriko Matematika Lehiaketan onenen artean egon da Julen Guerra, Maristak ikastetxeko ikasle durangarra. Hain zuzen ere, bosgarren geratu da. Bi fasetan garatzen da lehiaketa, eta bigarren eta azken fasean 270 ikaslek parte hartu dute. Horien artean izan dira Arrate Rivas, Abdul Maiga eta Guerra bera. EHUKo Zientzia eta Teknologia Fakultatean jaso zuen saria Guerrak, joan zen barikuan.



**Belén Tascón**

Kataluniako eskola intsumituen sarea

**"500 familia baino gehiago intsumiso agertu dira probaren aurrean"**

**DURANGALDEA** M.O.

LOMCEren aurka, eskola intsumituen sarea sortu zuten duela urtebete, Katalunian. Dagoeneko 45 ikastetxe daude saretuta. Belén Tascón ordezkaria Durangon izan da.

**Zer motibogaz sortu duzue LOMCEren aurkako sarea?**

LOMCE, lege erregresiboa dela uste dugu. Alde batetik, legearen karga ideologiko guztia dago: ez da barneratzailea, ez da laikoa, zentralizatzailea da, hizkuntz ereduak erasotzen du... Bestetik, DBHn errepikatzen duten ikasleak Lanbide Heziketarantz bideratu gura dituzte, Europaren aurrean txarto ez geratzeko.

**Hirugarren mailako azterketari aurre egiteko kanpaina zehatz bat egin duzue, ezta?**

Saretik apartekoak diren beste hainbat eskola ere gehitu dira, eta 500 familia baino gehiago

intsumiso agertu dira probaren aurrean. Ez dituzte umeak eraman ebaluazio egunetan.

**Bestelako intsumisio deiak ere zabaltzen zabilzate.**

Erabakiak eskola kontseiluek hartu ditzaten saiatzeko gabilza, adibidez. Hizkuntz eredu mantentzea da beste lan arlo bat; Katalunian urte hauetan guztietan gizarte kohesioa bermatu duen eredu da. Katalana ezin da ingelesagaz edo matematikagaz berdindu. Ez daitezela gaztelaniaz matrikulatu eskatu dugu, eta Erljioa zein Ekintzailetasuna irakasgaiak ez ditzatela aukeratu.

**Eta zerbait lortu daiteke?**

Baikorrak gara. LOMCE PP-ren botoekin bakarrik onartu zen; gainontzeko alderdiek esan zuten kendu egingo dutela, aldaketa egonez gero. Alderdi politikoen hori gogoan izatea gura dugu.

## Sutea gertatzen denerako, aholku sorta eskuratu

**DURANGO** M.O.

Sute bat sortzen denean, sarritan ez da jakiten zelan jokatu. Durangoko Udalak berbaldia antolatu du maiatzaren 19rako, Aldundiko suhiltzaileekin eta salbamendu zerbitzukoekin elkarlanean. Horrela, sutea gertatzen denerako aholku sorta eskuratzeko da ekimenaren helburua; suteen aurrean autobabesa sustatu gura dute. 18:45ean hasiko da berbaldia, Landako Elkartegian. Protokoloen azalpena, su-itxalgailuei buruzko informazioa eta beste hainbat aholku eskainiko dituzte hilaren 19ko saioan.

## Ikastetxeetako jantokien eredu aldatu gura dute

**DURANGO** M.O.

Ikastetxe publikoetako guraso elkarteak jantokien ereduaz hausnartzen dabilzta, eta horregaz lotuta *Eskola-jantoki publikoak: bide berriak urratzen* izeneko mahai ingurua antolatu dute maiatzaren 19rako, Durangon. 17:00etan hasiko da, Landako eskolan.

Eusko Jaurlaritzak baldintzetan aldaketa batzuk egin dituela esan dute antolatzaileek, eta hurrengo ikasturtean, lau ikastetxetan, jantokien arduragurasoek hartuko dutela. Horregatik, esperientziak ere ezagutuko dituzte 19an.

**ALBERDI**  
HARATEGIA



Askatasun etorbidea, 1 DURANGO · Tel.: 946 817 658  
Sabino Arana, 1 ZORNOTZA

- Zornotzara ere heldu gara -

**ETXEKO TXORIZO ONENAREN SARIA**

2014-2015  
VILLA DE BILBAO

**ODOLOSTE ONENARI SARIA**

2013 BIZKAIKO ODOLOSTEEN MUNDUKO TXAPELKETAKO IRABAZLEA

2014 ELORRIKO BUZKANTZA JAIKO ODOLOSTE ONENA



# Lanerako Langile Trebatuak

## ESKAINZA EUSKARAZ ETA GAZTELERAZ

### ESKAINZA OSOA

#### GOI-MAILAKO ZIKLOAK

- Metal-Eraikuntzak
- Web Aplikazioen Garapena
- Mekatronika Industriala

#### ERDI-MAILAKO ZIKLOAK

- Merkataritza Jarduerak
- Erizaintzako Zaintza Osagarriak
- Mantentze-lan Elektromekanikoa
- Soldadura eta Galdaragintza
- Mikroinformatika-sistemak eta Sareak

### ESKAINZA PARTZIALA

- Erizaintzako Zaintza Osagarriak
- Soldadura eta Galdaragintza

### SARBIDE-PROBARAKO PRESTAKUNTZA

- Goi maila: zati orokorra

### ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA

- Etengabeko prestakuntza (Hobetuz)
- Langabetuentzako prestakuntza (Lanbide Ikastaroak)

## DATAK

Aurrematrikula  
maiazaren 25etik  
ekainaren 5era

Matrikula  
uztailaren 16tik 21era

Tel: 94 673 02 51  
e-mail: [info@fpzornotza.com](mailto:info@fpzornotza.com)  
[www.fpzornotza.com](http://www.fpzornotza.com)



# 36ko gerran hildakoak gogoratuko dituzte, frankistek Zornotza hartu zuten urteurrenean

Bihar oroimen ekitaldia egingo dute; Zelaieta zentroan, berriz, 36ko gerraren gaineko erakusketa dago



36ko gerran erabilitako hainbat material ikusgai dago bihar arte, Zelaieta zentroan.

**ZORNOTZA** Joseba Derteano 1937ko maiatzaren 18an Zornotzan sartu ziren tropa frankistak. Aurreko egunetan –maiatzaren 14an eta 16an– bonba su-eragileekin bonbardatu zuten herria, eta sute ugari eragin zituzten. Data hori eta 36ko gerran hildakoak gogoratzeko ekitaldia egingo dute zapatuan, 12:00etan, Zelaieta parkean.

2010ean oroimenezko plaka bat jarri zuten parkean, eta

haren ondoan izango da ekitaldia. Biolontxelista baten doinuek emango diote hasiera zein amaiera 25 minutu inguru iraungo duen ekitaldiari. David Latxaga alkatearen berben ostean, Gregorio Arrien historialariaren txanda izango da. Aurtengo lore eskaintza Elias Euba San Antonio auzoko zornotzarrak egitea aurreikusita dago: “Osasun arazorik ez bada, bere emaztea eta biak etorriko

dira. Eubak bertatik bertara ezagutu zituen gerrako kontuak, eta lore eskaintza egiteko pertsona aproposa dela uste du”, adierazi du Joseba Fernán-

Musika eskolako koruko gaztetxoek parte hartuko dute; hiru belaunaldi batzeko modua izango da

dez Zornoza elkarte kulturalako presidentek. Ekitaldia elkarte horrek antolatzen du, udalaren laguntzagaz; aurten Belatxikietan elkartearen laguntza ere izan dute.

Zornotzako musika eskolako koruko gaztetxoek ere parte hartuko dute ekimenean: “Ekitaldian hiru belaunaldi batzeko modua da. Azken batean, ekitaldiak gertatu zena gogoratu nahi du, etorkizunean horrelakorik berriro ez gertatzeko, eta etorkizuna gaur egungo gazteak dira”.

## Erakusketa bihar arte

Zelaieta zentroan –areto nagusiaren aurrealdean– argazkien eta guda horretan erabilitako materialen erakusketa bat dago bihar arte: 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 21:00etara. Materiala Alberto J. Sampedro Aranzadi zientzia elkartearen kolaboratzaileak utzitakoa da. Zapatuko oroimen ekitaldia amaitzen denean Zelaietara joango dira, eta Sampedrok erakusketaren gaineko azalpenak emango ditu.

## Longaburuko pago egurra ateratzeko aukera dute herritarrek

**MALLABIA** Jone Guenetxea Longaburu menditik (Oiz mendia barrenean) norbere erabilerarako pago egurra lortzeko aukera dute mallabitarrek. Egurra eskuratzeko lan guztiak –moztu, garraiatu, jaso eta abar– interesdunaren kontura izango dira. Mendi basoetako pago egurra batu gura dutenek udal bulegoetan izena eman

Pagoz osatutako loteak uztailaren 24tik irailaren 30era bitartean atera beharko dira

dezakete maiatzaren 29ra bitartean. Udalak zozketa baten bitartez egokitutako zatian markatuta dauden zuhaitzak bakarrik bota ahalko dituzte izena emandakoek. Zuhaitz loteak uztailaren 24tik irailaren 30era bitartean atera beharko dira. Udalak herritarrei entresaka egiteko aukera eskaintzen dien hirugarren aldia da hau.

## Stef Iberian akordioa sinatu dute, eta mobilizazioak geratu dituzte

Langileen eskakizunak aintzat hartzeko konpromisoa hartu du zuzendaritzak

### ZORNOTZA J.D.

Zornotzako Stef Iberia enpresako langile asko elkarretaratzeak egiten ibili dira lan baldintza duinagoak eskatzeko. Egoera hobetzeko zuzendaritzaren aldetik idatzizko konpromisoa lortu ezean, lanuzteak egiten hasiko zirela iragarri zuten. Azkenean, hainbat batzarren ostean, lortu dute idatzizko konpromiso hori, eta mobilizazio guztiak geratu dituzte.

Enpresaren aurrekontua doitu arren, zuzendaritzak produktibitatea handitzeko es-

katzen zien langileei. Langileak horretarako prest zeuden, baina, ordainetan, baliabide hobeak eskatzen zituzten, eta zuzendaritzaren partetik langileen gainean zegoen presioa arintzea nahi zuten. Sinatutako akordioak ez du erabaki zehatzik jasotzen, baina asmo adierazpentzat hartu du komiteak, aurretik ikusten ez zuen jarrera bat ikusten du, eta sinatzea erabaki du: “Langileek jasaten zuten presioari dagokionez, gauzak beste era batera egingo dituztela diote. Batzarrak egin-

go dituzte enpresa zelan doan jakinarazteko. Gainera, modu orokorrean planteatuko dituzte, eta ez modu indibidualean”, adierazi du Garikoitz Arruza LABeko ordezkari eta enpresa komiteko presidentek. Baliabideei dagokionez, “dagoeneko ikusi daitezke hobekuntzak”. Arruzaren esanetan, “hautsa kentzeko makinak erosi dituzte, eta argiztapena hobetzen dabil-tza”. Aurrerantzean, idatzizko akordioa betetzen dela ziurtatzeko jarraipena egingo dutela dio LABeko ordezkariak.



Langileek elkarretaratzeak egin izan dituzte enpresaren aurrean.

## Homofobiaren eta transfobiaren kontrako horma irudia egingo dute

### ZALDIBAR Itsaso Esteban

Domekan, maiatzaren 17an, Homofobiaren eta Transfobiaren Kontrako Nazioarteko Egunagaz bat egiteko, horma-irudi baten margoketan parte hartzeko deialdia luzatu die Zaldibarko Udalak herritarrei. Maiatzaren 17an, 12:00etan, Agirre Lehendakaria parkean ipini dute horma-irudia margotzen hasteko hitzordua.

Domekan, 12:00etan, Agirre Lehendakaria parkean ipini dute horma-irudia margotzen hasteko hitzordua

Udaleko Berdintasun Sailaren ekimenez, lehenengoz antolatu dute Homofobiaren eta Transfobiaren Kontrako Nazioarteko Egunagaz bat egiteko ekimen bat Zaldibarren.

Agirre Lehendakariaren parkeko horma-irudiaren margoketaz gainera, Zaldibarko liburutegian homofobiaren eta transfobiaren kontrako irakurgaiak ipini dituzte.

## Ska, reggae eta stoner doinuak ekarriko dituzte gaztetxera

### OTXANDIO J.D.

Musika kontzertuak antolatzerakoan, aniztasuna eskaini, eta gaztetxea hainbat estiloren topagune bihurtzea da Gaztetxe Kontseiluaren helburuetako bat. Bide horren adibide bat maiatzaren 23rako, 23:00etan, antolatu dituzten kontzertuak dira. Alde batetik, Luz de Putas taldea ekarriko dute; Hondarri-

Voltaia taldeak, adibidez, stoner rock doinu indartsuak ekarriko ditu gaztetxera, hilaren 23an

biko talde horrek ska doinuak lantzen ditu, reggae eta rock ukituekin. Bestetik, Zumaiaiko Voltaia taldea ere Otxandion izango da, stoner rock estilo indartsuagaz. Sarrera doakoa izango da. Kontzertu bi horiek Gaztetxe Kontseiluko kultur eskaintza lantzen duen taldeak antolatu ditu. Gaztetxearen etorkizuneko funtzioen gaineko hausnarketaren ostean sortu zuten kontseilua.

# Agenda beteagaz heldu da Berrizko bertso eskola 10. urteurrenera

Bederatzi laguneko kuadrillagaz jardun gara euren zaletasunari buruz



Berrizko bertso eskolako kideak barikuetan, 13:30ean, elkartzen dira bertsoan ikasteko.

**BERRIZ** Amaia Ugalde Gaur bertan, Elorrioko bertso eskolak antolatu duen bertso merendolara joango dira, eta, asteburuan, Andikoako jaietan kantatuko dute. Bederatzi laguneko kuadrilla dabil Berrizko bertso eskolan, eta barikuetan batzen dira Miren Amuriza irakasleagaz, eguerdi ostean, hizkuntzaren inguruan olgetan egiteko. Lehenago Gorka Lazkanok eta Iratxe Ibarrak ere ematen zituzten eskolak, baina, eten baten ostean, duela hamar urte hasi zen bertso eskola berriro matxan; momentu honetan plaza ugari dituzte agendan.

Bertso eskolan 12 eta 15 urte arteko gazteak daude; berriztarrak gehienak, eta tartean garaitarrak eta mallabitarrak ere bai. Batzuk hiruzpalau urte daramatzate bertsoari buruz lan-

tzen, eta beste batzuk aurten hasi dira. Badabilta apurka-apurka erraztasuna hartzen: "Hasieran bertsoa ahazten bazitzaizun negarrez hasten zinen; orain, barrezka hasten gara, eta hasieratik hasten dugu bertsoa berriro". Berrizko bertsoaren aurrean kantatu behar izan dute hainbatetan, eta, horrek urduri jarri arren, txalok asko animatzen dituztela azaldu dute.

Ilargik, Amaiak, Laidak, Maiorak, Irurik, Eiderrek, Anek, Garoak eta Asierrek osatzen dute bertso kuadrilla. Oraindik ez dute nagusitan euren burua bertsoari ikusten, baina gustura dabilta zaletzen.

## Bertsomovieda

Aurten, bertsoak oinarri dituen Bertsomovieda bideo lehiaketan parte hartu dute Berrizko

bertso eskolakoek. Aurkeztutako bideoan euskara bako mundu bat irudikatu dute. Gidoia eurek pentsatu zuten, eta Ane ikasle oihak lagundu die muntaketagaz. Euskara euren arduretako bat dela azaldu dute, baina aitortu dute zail egiten zaiela gaztelaniara jotzen duten lagunekin elkarrizketa euskarara pasatzea. Bertso eskolan eta ikastetxean, euskararen erabilera desberdin bizi dutela azaldu dute: "Eskolan obligazioa da gehiago, eta, hona etortzen garenean, berez egiten dugu".

## Ekainean, ate irekiak

Bertso eskolak hamar urte bete dituela-eta, ekaineko lehenengo bi barikuetarako ateak irekitzeko egunak antolatuko dituzte, herritarrei bertso eskolan egiten dutena zer den erakusteko.

## Kherau taldearen kontzertua, bihar, Andikoako jaiak hasteko

**BERRIZ** A.U.

Bihar iluntzean, Donien Atxa jasota hasiko dituzte Andikoako jaiak. Ostean, 20:00 aldera, kontzertua izango dute ermitan: Kherau taldea da aurtengo Andikoako gonbidatua. Talde bizkaitar horrek folk akustikoa lantzen du.

Domekan, goizean, ganadu erakusketa izango dute auzoan. Oizera igo aurretik ganadua erakusteko ohitura dago Andikoako jaietan, eta, aurten, ardiei artilea mozten eta esnea jezten ere ibiliko dira erakusketan. Meza ere izango dute, eta, ostean, dantzariak emanaldia eskainiko dute. Bertso eskolako kideek ere parte hartuko dute goizeko jaietan. Arratsaldean, 17:30 aldera, asto baten eta behor baten arteko proba egingo dute, eta, gero, bola jokoa ibiliko dira.

Datorren asteko zapatuan amaituko dira jaiak. Auzotarraren lagunarteko afaria egingo dute, eta trikitilariak, eta Miren eta Xabier Amuriza bertso-larien bertsoak izango dituzte jai giroa sortzen.

## Pilotalekuko konponketen obrak adjudikatu ditu udalak

**GARAI** Markel Onaindia

Herriko pilotalekuko hormak ez daude egoera onean, eta, gainera, teilatuan itoginak daude. Konponketak egitea beharrezko ikusi du Garaiko Udalak, eta horien obrak adjudikatu ditu asteon. Urre enpresak garatuko ditu lanak, 30.000 euroren truke.

Pilotalekuaren konponketen proiektua aurrera atera ahal izateko, Bizkaiko Foru Aldundiari laguntza eskatu zion udalak; hain zuzen ere, Kirol Sailera jo zuen. Udal ordezkariak azaldu dutenez, 12.300 euro jaso dituzte Aldunditik.

Proiektua aurrera atera ahal izateko, Bizkaiko Foru Aldundiari laguntza eskatu zion udalak

Udal ordezkarien arabera, hormetan eta teilatuan obrak egiteaz aparte, erretena ere konponduko dute, egoera txarrean egon delako.

## Epaitegiak Elorrioko diru kontuak babestu ditu

Kontu Publikoen Epaitegiak azterketa egin du

**ELORRIO** M.O.

Kontu Publikoen Euskal Epaitegiak Elorrioko Udalararen diru kontu orokorrak babestu ditu, udalak berak bidalitako prentsa oharraren arabera. Epaitegi horrek Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako udal guztien kontuak aztertu ditu txosten batean, eta 2012an ezarritako baldintzak bete dituzten ala ez ere bai. "Elorriokoa izan da 2012an eskatutako alderdi guztiak bete dituen Durangaldeko udal bakarra", udaleko ordezkariak adierazi dutenez. Gainera, gabeziarik

erakutsi ez duten udalak 37 izan direla esan dute, aztertutakoen %14,8 bakarrik. Horregatik, emaitzaren garrantzi positiboa nabarmendu du Elorrioko Udalak, eta aurrera eramandako kudeaketaren isla dela uste du.

Gabeziarik erakutsi ez duten udalak 37 izan direla esan dute, aztertutakoen %14,8 bakarrik

## 500 euroko saria Ferixa Nausikoen kartel lehiaketan

**ELORRIO** M.O.

Martxan dago Ferixa Nausikoak iragarriko dituen kartela egiteko lehiaketa. Udalak 500 euroko saria ipini du jokoan, eta kartel egileek maiatzaren 30era arteko epea daukate euren lanak aurkezteko. Ekainaren 23an jakinaraziko dute zeinek irabazi duen.

Kartel guztiak ekainaren 3tik 20ra bitartean ikusgai egongo dira Iturrin, eta herritarrek botoa emateko aukera edukiko dute. Gero, epaimahai tekniko batek hartuko du azken erabakia, herritarren iritzia kontuan hartuta.

Inplanteak jarri

eta hurrengo egunean

PROTESI BERRIAREKIN mastekatu ahal izango duzu

ORAIN PROTESIA BEREHALA KARGATZEN ZAIEN INPLANTEEZ GOZATU AHAL IZANGO DUZU

BETI ZURE KIRURGIAREN SEGURTASUNAREKIN, 1 mm ARTEKO EBAKETAK (3D) EGITEN DITUEN HORTZETAKO 3D ESKANERRARI ESKER



15%

-rainoko DESKONTUAK

WEB GUNEKO TARIFETAN

Kontsultatu gure tarifak hemen:

www.clinicaekoden.com

\* 36 hilabete baino gehiagorako finantzaketarako, banku-finantzaketa kudeatzen dugu. R.P.S. 44/14

Arkotza, 4-behea • Durango • T. 94 621 78 22



Hauteskundeak

## Espazio publikoaren erabilera publikoa aldarrikatu dute

Hainbat espazio publiko zabalik egotea proposatzen du EH Bilduk



Durangoko EH Bilduko ordezkariak, Landako Gunean.

**EH BILDU** M. Onaindia Durangoko EH Bilduko kideek herriko espazio publikoaren erabilera publikoaren aldeko aburua aldarrikatu dute. Ildo horretatik, “errentagarritasun ekonomikoaren beharrez, errentagarritasun soziala” bultzatzea proposatzen du koalizioak. Landako Gunea, ikastetxe publikoetako jolasguneak, Etxezarreta parkea eta tren geltokiko aparkalekua herritarrentzako zabaltzea proposatzen du.

Elorrioren berriz, “herritarrek EH Bilduren herri programarekiko di-

tuzten zalantzak argitzea eta, datorren agintaldira begira, herritarrei ahotsa emateko bide berriak lantzen hastea” dira maiatzaren 19rako antolatutako duen Hartu Hitza jardunaldiaren helburuak. Galderak egiteko, hainbat modu eskaini ditu: [www.ehbildu.eus](http://www.ehbildu.eus) webgunea, [hartuhitza@ehbilduelorrio.eus](mailto:hartuhitza@ehbilduelorrio.eus) helbide elektronikoa eta 639 930 964 telefonoa.

Zornotzan, hainbat ekitaldi antolatuko dituzte domekarako. 11:00etan umeen puzgarriak jarriko dituzte, eta 13:00etan ekitaldia izango da plazan.

Urko Lopez alkategaia eta Josu Unanue Bizkaiko Batzar Nagusietarako hautagaia izango dira bertan. Ondoren, pintxo eta sagardo dastaketa egongo da.

Otxandion, aldiz, gaur 19:30ean, koalizioaren lantaldeen eta egitasmoaren aurkezpena egingo dute plazan. Joan zen astean, Abadiñon eta Berrizen ere aurkezpenak egin zituzten.

Zaldibarren, ekitaldi politikoa antolatuko dute biharko, 12:00etan, udal-terrean, eta, ondoren, herri bazkari egingo dute eskoletako pilotalekuan.

## Jeltzaleen hauteskunde proposamenak ezagutarazten

Hauteskundeetarako dituzten proposamenak aurkezten dabilta

**EAJ** Joseba Derteano Jeltzaleek mitina egin zuten, eguaztenez, Zornotzako Zelaieta parkean. Andoni Agirrebeitia zornotzako alkategaia, Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako presidentetzateko hautagaia eta Bizkaiko Buru Batzarreko presidentea Ixaso Atutxak parte hartu zuten ekitaldian.

Elorrioren, Joseba Mujika zerrendaburuaren arabera, herritarren beharrezarazko txiki eta zaharkituta geratu da

egungo kiroldetia, eta, horregatik, beste bat eraitzeko proposamena egin du; hain zuzen ere, Fytasa enpresa zenaren lurretan. “Proiektu horrek aukera emango luke une honetan industria hondamen egoeran dagoen lur kutsatua berreskuratzeko”, Mujikak adierazi duenez.

Izurtzako EAJk prentsa oharrean azaldu duenez, azken urteetan alkateztan egon direnak “ez dira kapaz izan herriko arazo handiei irtenbiderik emateko”. Era berean, herrita-

ren konfiantza eskatu dute “udalerrira martxan jarri, ongizatea bermatu, eta gauzak beste era batera egin daitezkeela erakusteko”. Oskar Zarrabeitia da zerrendaburu; agintaldi honetan Amankomunagoko presidentea eta udaleko zinegotzi izan da.

Berrizen, hauteskunde programa aurkeztu zuten joan zen barikuan. Ekitaldian Orland Isoird alkategaia eta Ana Otadui Batzar Nagusietako presidentetzarako hautagaia parte hartu zuten.



Andoni Agirrebeitiak, Ana Otadui eta Ixaso Atutxak parte hartu zuten Zornotzako mitinean.

## Herriaren Eskubidea plataformak lokala du herritar bati esker



Goienkalean Herriaren Eskubidea plataformak duen lokala.

**HSQ2D** J.D. Durangoko Herriaren Eskubidea plataformak lokala zabaldu du Goienkalean. Herritar batek Podemosen ekimenagaz bat egin, lokala ordainduko dio plataformari hauteskundeak igarotzeko bitartean.

Bestalde, Zornotzako Hiri Ekimenak eredu “justu eta jasagarriago” baten alde lan

egin gura duela azaldu zuen joan zen zapatuan, Zelaieta zentroan, egindako hauteskunde programaren aurkezpenaren. Udalaren funtzionamenduari dagokionez, udal kontuen auditoretza publikoa egiteko konpromisoa hartu du, eta kargu politikoen soldatetan “gardentasuna eta zorroztasuna” ezarri gura ditu.

## Gardentasun Ataria proposatzen du PSE-EEK

Durangoko sozialistek 162 ekintza proposatzen dituzte

**PSE-EE** Jone Guenetxea Durangoko sozialistek 162 ekintzagaz osatutako hauteskunde programa ezagutarazi dute. Azaldu dutenez, parte-hartze prozesu baten bidez osatutako proposamena da. Pilar Ríos zerrendaburuaren arabera, programa honetan, besteak beste, “enplegu gehiago eta hobea” bultzatu gura dute enplegu planen bidez eta herriko langabetuen kontratazio zuzenagaz. Era berean, ekintzaileentzako laguntza gehiago bideratu gura dituzte jarduerak ekonomikoak

Sozialistek Durangon hutsik dauden 1.500 etxebizitzak mobilizatzeko ekimenak jaso dituzte

martxan jarri ditzaten, negozioak zabaltzea oztopatzen duen burokrasia “minimora” murriztu. Autonomoei, ostalariei eta dendarietara laguntza planak proposatzen dizkiete herriko bizitarako “oinarrizkoak” direlako.

Etxebizitzari dagokionez, sozialisten programak hutsik dauden 1.500 etxebizitzak mobilizatzeko ekimenak jasotzen ditu. Gainera, etxe kaleratzeekin amaitzeko, “alerta goiztiar programa bat” proposatzen dute.

### Gardentasuna

Pilar Ríos zerrendaburuak parte-hartzea, herritarrek informatuta egotea eta udal kudeaketan gardentasuna izatea bermatu gura dituela dio. Horretarako, Gardentasun Ataria martxan jarri gura du.

## Independenteen 70 proposamen hauteskunde kanpainarako

**AI** Itsaso Esteban Abadiñoko Independentek taldeak aste honetan jakinaraziko ditu “herria hobetzen jarraitzeko 70 proposamen”. Jose Luis Navarro alkategaia aurreratu du 70 horien artean ez dagoela “proiektu faraonikoa”, herritarren bizi kalitatea hobetzeko “egitasmo egingarri eta beharrezkoak” direla. Durangoren eta Elorrioren arteko errepidean trafikoari eta segurtasunari loturiko hobekuntzak egiteko proiektua jasotzen du, esaterako, Independenteen hauteskundeetarako programak. Bestetik, Traña plazan lurpeko garajeak egitea, Zelaieta auzoa berritzea, Muntsaritzen aire zabaleko pilotaleku bat egitea eta hainbat eremutan aisialdirako gune berriak atontzea ere aurreikusi dituzte.



## Kimuak Lagunak kanpaina abiatu dute udalekuei begira

**IURRETA** A.B.

Udalekuak diruz laguntzeko kanpaina abiatu du Kimuak aisialdi elkarteak: Kimuak Laguna egiteko aukera zabaldu dute. Prezioa igo barik, izena eman duten gazte guztientzat -280 eskari izan dituzte, eta 150 umerentzako lekua- udalekuak antolatzeak ekonomikoki dakarren "inbertso handiari" egin gura diote aurre horrela.

Pertsona bakoitzeko egingo dira Kimuak Lagunak, eta egindako diru ekarpena eskertzeko kamisetak aterako dituzte. Familiako Kimuak Lagun bat egiteko 16 euro ordaindu beharko dira; bi egiteko, 30 euro; eta, familia berean hiru lagun egiteko, 40 euro (kamisetak emango dituzte opari). Hortik aurrerako lagun bakoitzeko 5 euro gehiago ordainduko da.

## LABek dio Arriaundi enpresak "maltzurkeriaz" jokatu duela

Arriaundi okindegiaren eta gozotegiaren aurrean elkarretaratzea egin dute Durangaldeko LABeko ordezkariak, langileen "prekarietatea" salatuzko



Arriaundi enpresaren aurrean egin du elkarretaratzea LAB sindikatuak.

**IURRETA** Aitziber Basauri Langileek jasandako "prekarietatea" eta "jazarpen sindikala" salatu ditu LABek Arriaundi enpresaren aurrean. Zuzenda-

ritzak "maltzurkeriaz" jokatu duela, eta langileak "mehatxatu" eta "iraindu" dituela salatu du sindikatuak, eta LABek langileen eskubideen alde jarraitu-

ko duela berretsi du. Sei langile kaleratu dituzte okindegiaren eta gozotegiaren; bost LABeko afiliatuak dira, eta bat UGTko ordezkaria.

LABeko Alfontso Arangurennek azaldu du enpresako zuzendaritzak ez duela langileekin batzartu gura: "Ezer ez dutela esateko eta esan beharrekoa epaitegian esango duela dio".

ELAk eta CCOOk onartutako soldaten beherapenaren aurka dago LAB, eta aurkeztutako alternatibak ez ditu onartu enpresak. "Arriaundin prekarietatea areagotzen den heinean, ordezkariak beste onuraren bat ateratzen dute. Enpresa nahi duena egitera ohituta dago, baina beti irainez, mehatxuek eta inposaketek baliatuta".

Arriaundin 30 bat langile daude orain, eta kaleratze gehiagoren zurrumurrua ere zabaldu da; "LABeko afiliatuen izenak jarri dira mahai gainean". Arangurenen esanetan, langileen eskubideen alde jarraituko dute: "Ez dugu eskubide urraketarik onartuko, ezta enplegu suntsiketarik ere, eta edozein jazarpen sindikal salatuko dugu". ELAko eta CCOOk ordezkari jarri "lotsagarria" eta "onartezina" deritza.

## Hezkuntzagaratiko diru-laguntzetan 12.500 euro banatuko dituzte

**IURRETA** A.B.

2014-2015 ikasturtean hezkuntzagaratik jaso daitekeen diru-laguntza eskatzeko epea hasi da. Hilaren 29ra arte egin daiteke eskaria, eta, aurten, 12.500 euroko aurrekontua du udalak. Iaz, 278 eskari onartu, eta 12.070 euro banatu zituen.

Iaz, 290 eskabide aurkeztu zituzten, baina, baldintzak bete ez, eta hamabi atzera bota ziren. Ezinbestekoa da aurreko ikasturtean herrian erroldatuta egon izana, umearen eskolazte mantentzea eta horretarako irakasleek, ikastetxeetako organoek edo hezkuntza administrazioek eskatutakoak betetzea. Otiak 16 urtera arteko ume bakoitzeko eskabide bana aurkeztu behar da kultur etxean.

## Gazte taldea eratzeko batzarra, maiatzaren 22an

Deialdi zabala egin dute, gazte talde bat sortzeko

**ABADIÑO** Itsaso Esteban Maiatzaren 22an, 19:00etan, Traña-Matienako Errota kultur etxean egingo den batzarrerako gonbidatu dituzte gazte taldean parte hartu gura duten auzokideak. San Prudentzio jaietan aurten lehenengoz antolatu duten Gazte Egunaren arrakastak bultzatuta, *Gazte egunetik, gazte taldera* leloagaz ekingo diote hemendik aurrerakoari. Datorren barikuko batzarrerako dei zabala egin dute, "ahalik eta gazte gehien hurbiltzea" gura dutelako, "mota guztietako ideiak batu ahal izateko". Batzar horretan parte hartzen dutenen proposamenak jaso, eta hurrengo hiletarako ekinzen egutegi bat osatu gura dute:

urte osoan askotariko ekintzak antolatuko dituen gazte taldea eratzeko da helburua.

Jaietako Gazte Egunaren arrakastak bultzatuta, 'Gazte egunetik, gazte taldera' leloagaz dihardute

Sanprudentzioetarako, maiatzaren 1erako, antolatu zuten Traña-Matienako gazteek euren lehenengo ekintza. Kuadrillen arteko hartu-emanak sustatzeko abiapuntu izan zedin gura zuten, eta oso balorazio positiboa egin zuten.

## 300 argazki zahar ikusgai, Gerediagaren eskutik

Hilaren 22ra arte Ermuan egongo da erakusketa

**DURANGALDEA** M. Onaindia 300 argazki zahar batzen dituen erakusketa ibiltaria antolatu du Gerediaga Elkarteak, bere sorreraren 50. urtemugako ekitaldien barruan. *Zuri-beltzean klik. Durangaldeko iragana*

argazkietan deitzen da erakusketa, eta Ermuan hasi du ibilbidea. Hilaren 22ra arte egongo da ikusgai herriko liburutegian. Erakusketagaz, argazkilarieiei euren lana aitortu nahi die Gerediagak.



Mallabiko plazan ateratako argazkia, Indalecio Ojangurenena. Gerediaga artxiboa

**DU RAN GO**  
**PILAR RIOS**  
DURANGOKO ALKATETZARAKO HAUTAGAI

**GEHIENGOAREN ALDE LANEAN DURANGOK ALDAKETA BEHAR DU HERRI IREKI ETA PARTE-HARTZAILEA GEHIAGO ETA ENPLEGU HOBEA HERRITARRENTZAKO ETXEBIZITZA ANDRAGUNEA HANDITU ANBULANTZIA MEDIKALIZATU BAT DURANGALDEAN**

BOZKATU  
**PSE-EE**

**gehiengoaren ALDE LANEAN**

## 30 postu ipiniko dituzte domekako azokan

Denetariko gaiak egongo dira ikusgai eta salgai



Iaz ere pintxo dastaketa egin zuten azokaren harira.

**MAÑARIA** Markel Onaindia XX. Artisautza, Elikadura eta Landare Azoka egingo dute domekan, Mañarian. 10:00etatik 14:00etara bitartean denetariko produktuak egongo dira ikusgai eta salgai, eta, horretarako, 30 postu ipiniko dituzte herriko plazan. Tartean, Mañariko etxaburutarren ogiak eta bertako produktore baten barazkiak ere erosi ahal izango dira.

Ogiak, barazkiak, euskal okelagaz egindako hanburgesak, arrautza ekologikoak,

Etxaburutarren ogiak eta bertako produktore baten barazkiak erosi ahal izango dira

gozoak, pateak, ardi eta ahuntz gazta... Makina bat elikagai egongo dira aukeran. Landareen arloan, bonsaiak, loreak, ortuko landareak eta landare aromatikoak eskainiko dituzte.

Bestalde, ahuntz azpigorrien monografikoa ere antolatu dute hemezortzigarrenez; 80 bat ahuntz ikusi ahal izango dira domekako erakusketan.

### Jai giroan

Azokaren bueltan, beste hainbat ekitaldi iragarri dituzte. Pilotalekuan umeentzako tailerrak prestatuko dituzte, eta, artisauen antzera, artileagaz egingo dute lan. Goizean argazki lehiaketako lanen erakusketak egongo da ikusgai, eta 12:00 bueltan dantzak eta pintxo dastaketa egongo dira.

## 250 euro daude jaietako kartel irabazlearen zain

Jaiak iragartzeko kartel lehiaketa abiatu du udalak, eta ekainaren 19ra artekoa da lanak aurkezteko epea

**IZURTZA** Joseba Derteano Izurtzako jaiak iragartzeko kartel lehiaketa abiatu du asteon udalak, eta ekainaren 19a da lanak udaletxean aurkezteko azken eguna. Irabazleak 250 euro jasoko ditu.

Hainbat baldintza bete beharko ditu kartelak. Denek *Izurtzako jaiak 2015* leloa izan beharko dute. Horretaz gainera, jaien ezaugarriren bat jaso edo adierazi beharko dute. Alor teknikoari dagokionez, kartelaren formatuak bertikala izan

behar du nahitaez, eta 50x70 zentimetroko neurria aurkeztu behar da. Gura duenak kartela informatika euskarrian (CD edo USB memoria) aurkeztu ahal izango du. Kartelak egiteko erabili beharreko teknikan ez dago mugarik; sortzaileek gura duten teknika erabili dezakete. Lehiaketako irabazlea zein izango den aukeratzeko epaimahaia Kultura Batzordeko kideek osatuko dute, eta baliteke aurkeztutako lanekin erakusketa bat antolatzea.

## Kulturen arteko jaialdia bertan behera utzi dute

Astebururako aurreikusita zegoen, baina jaialdia antolatzerako orduan zailtasunak sortu zaizkie

### ATXONDO J.D.

Asteburu honetarako aurreikusita zegoen, baina azkenean ez dute egingo. Momentuz kulturarteko jaialdiaren bosgarren aldia bertan behera uztea erabaki dute antolatzaileek.

Hainbat faktorek bat egin dute erabaki hori hartu behar izateko. Aurtengo jaialdiak Andaluziako (Espainia) kultura jorratu eta ezagutarazi nahi zuen. Hori lortzeko, jatorri andaluziarreko taldeekin hartu-

emanetan jarri dira, baina talde horiek ezin zuten aurreikusitako egunetan etorri. Bestetik, antolakuntzan dabilen taldeak deialdi bat egin zuen herrira, antolaketaren zama herritar gehiagoren artean banatzeko helburuz, baina deialdi horrek ez zuen arrakastarik izan. Beraz, azken batzarrean erabaki zuten jaialdia ezin zela egin. Baliteke irailtik aurrera kulturarteko jaialdia antolatzeko beste saiakera bat egitea.

### > DURANGALDEA ASTEON

## Mugikorren tailerra nagusien egoitzan

**DURANGO** > Maiatzaren 21ean eta 28an mugikorra erabiltzeko tailerrak egingo dituzte Durangoko nagusien egoitzan. Tailerrak arratsaldean izango dira, 16:30etik 18:00etara. Izar Gaztea elkarteak antolatu ditu tailerrak, Bizidun elkartearen kolaborazioagaz. Bakoitzak bere mugikorra eramatea ezinbestekoa izango da.

## Kriskitin dantza taldearen eztegia

**DURANGO** > Kriskitin taldekoak antzinako erako eztegia antolatzen dabilta ekainaren 20rako. Dantza taldeak 1995. urtean antolatu zuen lehenengo aldiz ekitaldi hau, eta, urte hartatik gaur arte, bost urterik behin antolatu du ekitaldia. Kriskitin dantza taldekoek ateak zabalik dituzte edonork parte hartu dezan.

## 20.000 euro Nepalera

**ZORNOTZA** > Nepalen gertatutako hondamendiaren ondoren, Zornotzako Udaleko Gizarte Ekintza Batzordeak erabaki du, aho batez, Nepalen izandako lurrikaran kaltetutako 20.000 euro ematea, oinarritzko beharrianak asetzeko. Dirua Gurutze Gorriak kudeatuko du.

### **Iritzia**



Udal agintarien eta Durangaldeko Amankomunazgoaren arduragabekeriaren ondorioz, Aste Santu aurretik egoera honetan (eta okerragoan ere egon dira) daude edukiontzi hauek. Arantza Baigorri alkate andreak egunero bere etxeko leihoak irekitzean ikusten duen panora-

mika. Usaimen arazoren bat ezean, ez al du kiratsa nabari? Agian arazoari aurre egiteko hauteskunde aurreko astearren zain egongo dira gure "agintariak". Ordurako konpoduz gero, akaso boto gehiago edo... Lotsarik bai?

## Gertakari diskriminatzaileak Durangaldean

Hauteskunde kanpaina betean gaudela, utz iezadazue gogoetarako gai bat mahai-gaineratzen: A-8ko ordainketa.

Denok jakingo duzue, azpiegitura hori ez zitzaion ezer kostatu Bizkaiko Foru Aldundiari; aitzitik, bere ustiapenak diru kopuru handia eman zion. Kontzesioa amaitu zenean, doako zirkulazioa baimendu beharrean, kobratzen jarraitu zuen, ordainlekuak zituela aprobetxatuta. Baina paradoxa bat dago horretan guztian. Bizkaiko gainontzeko inguruetan Bilborako sarbide azkarrak eta doakoak eraiki bazituen ere-Txorierriko autobidea eta Cadaguako autobidea, esaterako-, Durangaldeko aukera bi

baino ez ditugu: lehena, ia hirugarren mundukoa den 634 errepede bete-betetik joatea; eta, bigarrena, nolana hainkoa ez den 2,14 euroko zenbatekoa ordaindu, eta Durangotik Usansolora dauden 16 kilometroak egitea; kontuan izan, Galdakaon eta Usansolon bidesaria kendu egin zutela, eta A-8 errepedearen Bizkaiko gainontzeko zatia doakoa dela.

Uste dut hau dela unea, gure botoa erabilia, A-8ko bidesaria bertan behera geratu dadila eskatzeko; izan ere, EAJ-ren politikak, kasu honetan, gainontzeko bizkaitarren aldean Durangaldeko herritarroei eginiko lapurreta eta diskriminazio iraingarria izan du oinarri.

Juan Carlos Poderoso (Durango)

Mikel A. Azpitarte Llona (Zaldibar)

**ZUZENKETA** Zornotzako Eleizetan zikloaren barruan, gaur, Xabier Amurizak poesia errezipitatuko zuela idatzi genuen joan zen astean. Ikuskizunaren ardatza Amurizaren poesia da, baina emanaldia Joe Gonzalezek, Jose Luis Canalek eta Fran Lasuenek eskainiko dute.



astekaria@anboto.org  
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbidea: Bixente Kapanaga 9, 48215  
• Izen-abizenak • telefona • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia  
-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-

Anbotok ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoen eta iritzien erantzukizunik.

**Txomin Pinilla Moreno | Berrizko margo lehiaketako herriko sariduna | Berriz, 1967****“Oso maila handiko margolariengandik ikasteko aukera ere bada pintura lehiaketa”**

Berrizen egindako hamaseigarren pintura lehiaketan, berriztar onenari emandako saria jaso zuen Pinillak

**> PINTURA** Itsaso Esteban  
**Zelako giroa egon zen zapatuko lehiaketan?**

Ederra izan zen. Egia esan, urtero egoten da oso giro polita; izan ere, partaide askok aurreko urteetatik ezagutzen dugu elkar. Oso maila handiko margolariengandik ikasteko aukera da lehiaketa: gomendioak eman izan dizkirate, eta euren jarduteko modutik asko ikasi dut.

**Noiztik parte hartzen duzu aire zabaleko lehiaketa honetan?** Lehiaketaren hamaseigarren

edizioa izan da aurtengoa, eta lehenengo bietan izan ezik, gutzietan hartu dut parte.

**Maila handiko margolariak etortzen dira parte hartzera.** Itzelezko maila duten margolariak etortzen dira. Asko Arte Ederrak ikasitakoak izaten dira, eta oso azkar egiten dute lan. Ideiak oso argi edukitzen dituzte askok lehiaketaren hasieratik.

**Tentsiorik badago lana hain ordu gutxian amaitzeko?** Tentsio apur bat egoten da, bai.

Nire kasuan, egun batzuk lehenago erabakitzen dut zer margo tuko dudana, eta proba batzuk ere egiten ditut. Lehiaketaren egunean, bestalde, koadroa egiteko hain denbora gutxi edukitzeak sortzen dizu estresa. Nahiko urduri egoten naiz, ikasteaz eta hobetzeaz gainera, irabaztea ere helburu izaten dudalako.

**Berriztarra izanda, lanean zaudela jendea hurreratzeko zaizkizue?** Lana egiteko aukeratzeko duzun lekuaren arabera izaten da. Baserri inguruetan, esaterako, ez

da jende askorik ibiltzen. Baina herrigunetik gertuago bazabiltza, jendea hurbiltzen zaizu zer egiten zabiltzan ikustera, gustuko dutela esatera edo gomendioaren bat ematera.

**Igartzen duzu urtero lan hobea egiten duzula lehiaketan?**

Igartzen dut, bai. Eta aspaldiko koadroak ikustean, zera pentsatu izan dut: “Zelan saritu ninduten honengatik?”. Batez ere, koloreen erabilpenean igartzen dut garapena: koloreak askoz hobeto uztartzen ditut, adibidez.

Bestalde, argitasunari eta bolumenari dagokionez, zein konposizioari dagokionez ere, sumatzen dut hobekuntzaren bat izan dudala.

“Lehiaketaren egunean koadroa egiteko hain denbora gutxi edukitzeak sortzen du tentsioa”

**Lehiaketa egunak ez direnatan ere kalera ateratzen zara zure koadroak margotzera?**

Ez. Normalean, etxean egiten dut lan, horretarako atondu dudan gela batean. Sasoi batean, gehiago ateratzen nintzen kalera margotzera edo autotik paisaia bat magortzera... Behin, Berrizen lehiaketa zegoen batean, autoan ibili nintzen lanean, mihisea bolantean ipinita.

**Zelan ikasi dituzu teknikak?**

Eginez ikasi dut, eta besteez gainera jarrita ere bai. Gaur egun, Internetek ere aukera asko eskaintzen dizkio ikasi gura duenari. Gaztetxea dagoen lekuan, behin pintura ikastaro bat egin nuen, eta han animatu ninduten txikitatik egiten nituen marrazkiei kolorea ematera.

**Marrazteko zaletasuna, beraz, umetatik datorkizu...**

Bai, oso txikitatik. Beti gustatu izan zaizkit komikiak, eta marrazkiak kopiatzen nituen umetan. Gero, urteetan jarraitu dut gogoko dudana horretan hobetzeko ahalegina egiten.

**Errotatxo kaleko irudiagaz irabazi du Txomin Pinillak herriko saria**

Tarteka agertzen ziren eguzki izpiak bere lanean jasotzen asmatu zuen Pinillak

Akrilikoagaz probatzeko apustua egin du Txomin Pinilla berriztarrek pintura lehiaketaren aurtengo edizioan. Orain arte olioagaz egin izan du lan, baina teknika berriagaz gailendu, eta herriko margolari baten lanik onenaren saria jaso du. Ez da Pinillak sari hau jasotzen duen lehenengo aldia: beste edizio batzuetan ere eman izan dio epaimahaiak sari hori.

Errotatxo kaleko irudiagaz irabazi du herriko saria. Zapateria egun oso eguzkitsua izan ez bazen ere, tarteka agertzen ziren eguzki izpiak margotu zituen Pinillak. Izan ere, inpresionismoa du gustuko; hau da,

paisaia batek sorturiko sententziaren arabera jokatzeko koadroko argi-itxalak margotzean.

**Jose Ignacio Ameliviak margotutako koadroak irabazi zuen zapatuko lehiaketako lehenengo saria**

Gaztelugatxe margotzea du orain, Pinillak, esku artean. Izan ere, kostaldeko paisaiak maite dituela azaldu du, itsaslabarretako argitasunaren jokoak, bereziki: “Ilunabarrean, eguzkiak itsaslabarrean sor-

tzen dituen argiak eta koloreak oso gustuko ditut”. Etorkizunean, itsaslabarren irudiekin egindako koadroen erakusketa bat egitea gustatuko litzaiokeela kontatu du. “Umetan Gorlizko ospitalean ingresatuta egon nintzen, eta orduetik hona bereziki maite dut itsasaldeko paisaia”.

José Ignacio Ameliviak margotutako koadroak –lerro hauen eskuinaldeko argazkian ikus daiteke– irabazi zuen Berrizko lehiaketako lehenengo saria. José Luis Lopezek eraman zuen bigarren saria, eta Juan Berrozpek, osterara, hirugarrena.



Goian, Pinillaren koadroa. Behean, lehenengo saria jaso duen obra.

# Raquel Fernandez 'Espazioa paper bezala' erakusketa

Gaur, 19:00etan, egingo dute erakusketaren inaugurazioa, Arte eta Historia Museoa



Masaren eta hutsunearen inguruko gogoetaren isla da Fernandezen lana.

**> ESKULTURA** Itsaso Esteban Raquel Fernández artistaren lana egongo da ikusgai, hilabete honetan, Durangoko Arte eta Historia Museoa; *Espazioa paper bezala* izenburua du obrak. Gaur, 19:00etan, egingo dute erakusketaren inaugurazioa, eta ekainaren 14ra arte egongo da ikusgai.

Masaren eta hutsunearen inguruko gogoetan oinarrituriko eskultura lana da Fernandezena. Bere eskulturak, askotariko materialetan egindako forma geometrikoak dira, baina pintura ere lantzen du.

Julián Franco arkitektoak *Espazioa paper bezala* erakusketaren aurkezpen orrian dioenez, "forman zein edukian, askatasun sentimentu sakon bat dario" Fernandezen lanari. "Lana ez da soilik materiala", dio

Francok: "Intelektualitatea modu konstantean agertzen da hutsunetik materialtasunera doan garapen prozesu baten bitartez, formak planoetatik lerroetara eta azkenik airera eramanez". Fernandezen lanak ikuslea harritzeko daukan gaitasuna ere azpimarratu du Francok.

Gaur zabalduko dute erakusketa, eta ekainaren 14ra arte egongo da ikusgai Arte eta Historia Museoa

Fernandezen eskulturak askotariko materialetan egindako forma geometrikoak izaten dira

Martitzenetik zapatara, 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 21:00etara egongo da erakusketa zabalik, eta, domeketan, ostera, 11:00etatik 13:00etara.

## GEURE DURANGALDEA

**AINHOA URIEN TELLETXE**

Ikaslea



### Promesetan uger

Gauza bat egiteko aske izateak ez du esan nahi gauza hori egin dezakedanik edo egin behar dudunik. Egin behar ez izate horri helduko dio askok, baina ohitura hedatu bihurtu dira azken asteotan gauzak egin behar dituztenen sermoiak, egiteko ordua iristean aitzakia gisa egiteko libre ez direla esango dutenenak. Hautakunde kanpainaz ari naiz, beste batzuen artean.

Asko dira etorkizuneko promesa aitzakiadunak, baina nork erreparatzen dio orainari?

Ayotzinapan 43 aulkik hutsik jarraitzen dute ikasgelan, 28 eta beste asko dira libre behar luketenak, gose direnen zifra amaigabea da eta zifra txikiagoa izanagatik are bortitzagoa da gose-tien kontura janez sabela betetzen dugunona. Zerrenda luzea da.

Nepal da orain egunkari ororen goiburua, etengabeak dira telebistako irudi mingarriak eta kaleetan errukia piztu nahi duten kartelak, laguntza eskatzen.

Guk sms batekin lagundu omen dezakegu, ahalmena dugulako mugikor bat edukitzeko eta gainera fakturaren barruan sartu dezakegulako mezu horren bidalketaren gastua. Guk dirua edukitzeagatik besteei lagundu beharrak desberdintasuna areagotu baino ez du egiten. Iraganetik oraina "konpondu" beharko dugu, etorkizuneko promesetan praktikak jaitzita ibili beharrean.

## > LITERATURA

Maiatzaren 8an egin zuten Iurretako XII. Literatur Lehiaketaren sari banaketa ekitaldia, Ibarretxe kultur etxean. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, batxilergoko eta helduen saileko sariak banatu zituzten lehenengo, eta Lehen Hezkuntzakoak eman zituzten ekitaldiaren amaieran.

Kristina Mardarasek aurkezu zuen sari banaketa ekitaldia, eta Iñaki Totorikaguena alkatearen eta Amatzu Abasolo zinegotziaren eskutik jaso zituzten parte-hartzaileek euren sariak: liburu sorta jaso zuten txikienek, liburu bonuak gazteek, eta dirusariak eman zizkieten helduei. Udalak jakinarazi duenez, 2.700 euro inbertitu ditu lehiaketako sarrietan emateko.

Iñaki Totorikaguena alkateak ekitaldiaren aurkezpenean azaldu zuenez, 387 lan jaso dituzte, aurten, ipuinen eta bertsoen sailak biltzen dituen lehiaketan; 131 Lehen Hezkuntzako ikas-

# Iurretako XII. Literatur Lehiaketan 387 idazlan jaso dituzte, aurten

Joan zen barikuan egin zuten lehiaketaren sari banaketa ekitaldia, kultur etxean



DBHko eta batxilergoko ikasleak, Ibarretxe kultur etxeko sari banaketa ekitaldian.

leek aurkeztu dituzte, 225 DBHkoek, eta 31 helduek.

Iurretako alkateak barikuko sari banaketa ekitaldian azpimarratu zuenez, bestalde, Euskal Herritik kanpoko hainbat

parte-hartzaile ere izan dituzte aurtengo edizioan. Ipuinen arloko helduen sailean, esaterako, Ernesto Tubía idazle errioxarraren *La Pluma* lanak jaso du lehenengo saria.

Iurretako Udalak eta Herri Bibliotekak haur, gazte eta helduen artean irakurzaletasuna eta sormena bultzatzeko helburuagaz antolatu dute lehiaketaren XII. edizioa.

San Agustina 16, 12 - 48200 Durango  
sanagustin@durango-udala.net - Tel.: 946 030 021

## Kurutziaga ikastolako antzerki taldea

**Maiatzak 15 / 16**  
20:00 San Agustin inguruan Fig Konparsilla  
22:00 KlinK antzezlan

San Agustin KULTUR GUNEA  
DURANGOKO UDALA

antzerki

PLATERUENA  
Durangoko Kafe Antzokia www.plateruena.net  
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

## JAT ETX EA

EGUNEKO MENUA  
ASTELEHENETIK OSTIRALERA

**MAIATZAK 15**  
21:15ean  
DURANGO'S PUB QUIZ  
LEHIAKETA

**MAIATZAK 17**  
18:00etan  
AIKO ERROMERIA  
DANTZA

**MAIATZAK 22**  
19:30ean  
COMBO KONTZERTUAK  
KONTZERTUA

# AUTOEN GEHIGARRIA



**ALLUITZ MOTOR, S.L.**

Alluitz, z/g 48200 DURANGO/Bizkaia

Tel.: 946 202 004 Faxes: 946 200 998

alluitz@otola.org · www.alluitzmotor.com

DISFRUTATZEKO TEKNOLOGIA





Sei box edo lanerako gune dauzkate Mallabierna industriaguneko egoitzan.

## Gero eta erabiltzaile gehiago ditu Repara Tu Vehículo tailerraren mekanika kontzeptu berriak

Autoaren mantentze eta konponketa lanak norberak egiteko lekua eta baliabideak eskaintzen ditu Iurretako Repara Tu Vehículo tailerrak

Orain artean ezagutu ditugun tailer mekanikoen alde ratuta, bestelakoa da Iurretako Repara Tu Vehículo tailerraren tankerako zentroek eskaintzen duten aukera. Mekanikariaren eskulanaren ordez, norberak bere lanak egiteko tokia eta baliabideak eskaintzen ditu enpresa honek. Sei box edo gu-

ne dauzkate tailerrean, auto baten mekanika lanak egiteko behar diren lanabes guztiakin hornituta, eta horiek alokatzen dizkiete, bezeroek euren eskuekin egin ditzaten autoaren mekanika arineko lanak. Lanerako leku aproposa ez ezik, produktu eta pieza mekanikoak merkatuko batez bestekoa bai-

no merkeagoak diren prezioetan eskaintzen ditu Repara Tu Vehículo. Gainera, bi-hiru mekanikari egoten dira tailerrean beharrean, aholkuak emateko eta laguntzeko. Gaizka Muguerza enpresaren salmenta zuzendariak dioenez, "olio aldaketa egitea ez da zaila, berez, baina, batez ere hasierako beldurrak

kentzeko, errazagoa da profesional bat alboan badaukazu, eta laguntzen badizu". Muguerzak azaldu duenez, Iurretako zentroko erabiltzaileetako askok zaletasuntzat dute mekanika, eta jende horri "tailer garbi eta argitsu" bat eskaintzea dute helburu: "Ez da lan erraza tailer mekaniko bat garbi izatea, baina horretan saiatzen gara".

Autozalea den Durangaldeko jendeak gustuko lantxoak egiteko leku aproposa du Repara Tu Vehículo, eta zaletasuna partekatze gunea ere bada: "Gure mekanikariaren aholkularitzagaz, etxeko tratuagaz oso gustura jarduten da jendea lanean". Mekanika gustuko duen gazte horretaz gainera, beste

profil batzuetako erabiltzaileak ere baditu tailerrak: aurrezteko helburu duena, esaterako. Izan ere, ordu erdika alokatzen dituzte tailerreko lantokiak: 19,80 euroan alokatu daitezke box horietako bat ordu erdiz. Ohiko tailer baten prezioaren erdian eskaintzen ditu Repara Tu Vehículo bere zerbitzuak. Egoera ekonomikoak behartuta, autoaren konponketa aurrezteko gura duen jendeari honako mezu hau helarazi gura dio Repara Tu Vehículo: "Beste mekanika bat posible da".

### Mekanika arina

Mekanika arinekoak izaten dira tailer honetan egiten dituzten lan gehienak: olio eta freno aldaketak, eta gurgilen mantentze lanak, esaterako. "Ez gatoz inori bere merkaturak kentzera, baizik eta mekanika arineko gauzak egin gura dituen merkatuko esparru horri eskaintza egitera", dio Muguerza tailerreko arduradunak.

Bezeroek gero eta gehiago eskatzen dituzten bestelako lanak ere eskaintzea izango dutela etorkizuneko apustua azaldu du Gaizka Muguerzak. Azken urteetan, Espainiako hainbat txokotan zabaldu dute Repara Tu Vehículo marka: sei zentro dauzkate zabalik. Tailer mekaniko gehienetan bezala, maiatzean, ekainean eta uztailen hartzen dute jende gehien tailer honetan ere.



Aholku-emaile aritzen dira mekanikariak.

## 2009. urtean zabaldu zuten Iurretako tailerra

2009. urte amaieran zabaldu zuten Repara Tu Vehículo tailerraren Iurretako egoitza. Aitzindaria izan da EAEn zein

Espainian ere: proiektu pilotu bezala zabaldu zuten, hasiera batean. Mekanika tradizionalaren kontzeptutik beste

herrialde batzuetan askoz zabalduago zegoen kontzeptu batera salto egitea zuten helburu bultzatzaileek.

Datuek erakusten dute, gutxinaka bada ere, jendearen ohiturak aldatzen doazela. Gaur egun, biztanlearen %5 inguruk eramaten du autoa Repara Tu Vehículo bezalako lekuetara; Ingalaterran edo Frantzia, aldiz, %10ak baino gehiagok. Horrela dio Gaizka Muguerza salmenta zuzendariak: "Bere garaian altzarien merkatuagaz gertatu zenaren antzeko zerbait gertatzen ari dela esango nuke: eta gutxinaka bagoaz gure lekua egiten".



**Bestelako mekanika posible da**

**Konpondu zure autoa zuk zeuk 15 minutu doan eta olio promozioekin**

[www.reparatuvehiculo.es](http://www.reparatuvehiculo.es)

### PROMOZIOAK

OLIOA+OLIO FILTROA EROSIZ GERO  
**15 MINUTU DOAN BOXEAN**

AURREKO+ATZEKO FRENOAK EROSIZ GERO  
**FRENO GARBITZAILEA DOAN**

OLIOA+OLIO ETA ERREGAI FILTROA EROSIZ GERO  
**30 MINUTU DOAN BOXEAN**



**\*Total 23,75€**



**\*Castrol 36,25€**



**\*Repsol 45,85€**

\* Ekainaren 30era arte

Gaizka Arretxe | Gane autoeskola | Durango

## “Antzinakotasun bategaz, beharrezkoak izan beharko lirateke berreziketa ikastaroak”

Duela bederatzita urte sartu zen indarrean estatistikek baliogarria dela dioten puntu bidezko gidabaimena



► **GIDABAIMENA** A. Basauri  
2006an sartu zen indarrean puntukako gidabaimena. Gehienez hamabost puntu lortu ditzake gidari batek; puntuak galduz gero, berriz, sentsibilizazio eta berreziketa ikastaroak egin behar ditu -bi urtean behin baino ezingo da egin-. Gidabaimena galduz gero, sei hilabete itxaron behar dira ikastaroa egiteko.

**Gidabaimena lortzean, zortzi puntu ditugu gidariok...**

Gidabaimena lortzeagaz batera zortzi puntu ditugu, bai, eta urte biko pasako gara hamabi puntu izatera. Hortik aurrera puntuak

galdu zenitzake, baina gidabaimena ere. Behin baimena berreskuratuta, zortzi puntugaz hasiko gara berriz.

Hala ere, irabazi ere egin daitezke puntuak.

Hamabi puntu badituzu eta hiru urtean arau-hausterik ez baduzu egin, bi puntu gehiago ematen dizkizute; zortzi urtera arau-hausterik barik helduz gero, hamabost izango dituzu. Hamabost izan genitzake gehienez.

**Gidabaimena galdu barik puntuak galtzea badago?**

Bai. Gidabaimena galtzera heldu barik galdutako puntuak be-

rreskuratzeko puntu partzialak lortu ditzakegu, gehienez sei. Galdutako gidabaimena berreskuratzeko azterketa egin beharko dugu berriz.

**Sentsibilizazio eta berreziketa ikastaroa egin behar da aurretik.**

Bai. Puntu partzialak berreskuratzeko nahikoa da horregaz. Dena den, arau-haustea arina izan bada eta urte biko besterik gabe ere berreskuratu zenitzake galdutako puntuak; hiru urtean arau-hauste larria denean. Gidabaimena berreskuratzeko, berriz, ikastaroa ez eze, azterketa ere egin behar da.

“**Puntuak galdu arte, ez dut uste puntu sistema honetaz jabetzen garenik**”

“**Gidabaimena duela urte asko atera zuenak ez du oraingo araudia ezagutzen**”

Ikastaroan egin beharreko ordu kopurua, baina, ez da berbera. Ez; puntu partzialak lortzeko hamabi orduko ikastaroa egin behar da. Gidabaimena berreskuratzeko, ostera, 24 ordukoa da ikastaroa, eta azterketa egin behar da Trafikoko Zuzendaritza Nagusian.

**Gizarte zerbitzuak egiteko aukera ere badago gidabaimena berreskuratzeko.**

Arau-haustearen arabera posible da bide penaletik joatea. Kasu horietan, eta gidabaimenik gabe egon beharreko denboraren arabera, gizarte zerbitzuak egitera zigortu zaitzakete. Gidabaimena galdu zenezake arau-hauste arin asko pilatuz gero zein arau-hauste bakarragaz (autobidean 220 kilometro orduko abiadura joanez gero edo alkohol tasa altuagaz gidatuz gero, adibidez). Bide penaletik joan daiteke ala ez.

**Ezagutzen dugu puntukako sistema?**

Puntuak galdu artean ez dut uste jabetzen garenik. Oro har,

jendea ez dago informatuta. Hala ere, autoeskola guztiak ez daude puntuak berreskuratzeko ikastaroak emateko baimenduta. Hori ere ez da bidezkoa.

**2006an jarri zen indarrean puntukako sistema. Baliogarria da?**  
Baietz esango nuke. Estatistikek ere hori diote. Adibidez, irteera-operazioetan istripuak nahiko gutxitu ziren 2007tik 2012ra bitartean. Gero eta kontzientziatuago gaude; batez ere, gazteak. Jaietan, esaterako, tren eta autobusa erabiltzen dituzte gazte askok.

**Zirkulazio kodea ezagutzen dugu?**

Ez. Gu geu, honetan lan egin arren ere, egunero birziklatu beharrean gaude, araudia behin eta berriz aldatzen da eta. Baina gidabaimena duela urte asko atera zuenak ez du ezagutzen indarrean dagoen araudia.

**Puntuak galdu barik ere, berreziketa ikastaroak egin beharko lirateke, beraz.**

Bai; 85 urteko pertsona batek, adibidez. Baimena duela 69 urte atera zuen pertsona batek gaur egungo arau edo seinale asko ez ditu ezagutzen. Beste gidariak egindakoari begira ikasi dute; lehen, traktorea gidatzeko baimena zuenak maniobra azterketa eginda lortzen zuen autoa gidatzeko baimena. Hemendik ez urte askora Trafiko Zuzendaritza Nagusiak horrelako birziklapen edo berreziketa ikastaroak abiatuko dituela uste dut. Antzinakotasun batetik aurrera beharrezkoa izan beharko litzake horrelako ikastaroak egitea.

**Puntuak erostea, senideren batenak erabiltzea...**

Gertatzen da, bai. Baina, hori erregulatzea oso zaila da. Esan ohi den bezala, legea egin duenak tranpa ere egin du. Ezin da kontrolatu. Gauza berbera gertatzen da beste inork norberaren puntuak baimenik gabe erabiltzean, hori ere ezin daiteke kontrolatu.



Montevideo, 9 48200 Durango  
946 539 270 / 640 708 964

[Bila gaitzatzu!](#)

**MATRIKULA DOAN EKAINAREN BUKAERARA ARTE!**

- Ikastaro intentsiboak
- Gidabaimena euskaraz ere atera daiteke
- Zuzeneko arreta
- Punta-puntako programa informatikoak erabiltzen ditugu: testak, ikastaro teorikoak...



Jose Manuel Núñez | Motorzalea Inma Acha | Motorzalea

# “Motorrean bidaiatzen dugunok esperientziak partekatzea da helburua”

Asteburu honetan, Bidaiari Handien XI. Elkarretaratzea egingo dute Durangon

**> ELKARRIZKETA** E. Azurmendi Bizkaian egiten den lehenengo edizioa izango da aurtengoa. Jose Manuel Núñez durangarra eta Inma Acha bere bikotea dira aurtengo edizioaren antolatzaileak. Elkarretaratzearen astean eurekin egon nahi izan dugu, mota hauetako ekimenei buruz informatzeko eta, bide batez, ekitaldiaren aurreko egun hauetan zer sentsazio daukaten jakin ahal izateko.

**Zer moduz doa astea? Gero eta gutxiago falta da.**

**Jose Manuel Núñez:** Egia esan, urduritasuna nabari dugu, lan dezente egin dugulako. Dena ongi irtetea nahi dugu, eta buru-belarri gabiltza lanean. Gainera, asteburu gero eta gertuago dago, eta azken egun hauek zoztzeakoak izaten dira. Beti dago azken orduko zerbait egiteko.

**Zer lortu nahi duzue mota honetako elkarretaratzeekin? Zer helburu duzue?**

**J.M.N.:** Oro har, motorrean bidaiatzea gustatzen zaion persona oro batzea eta elkarrekin esperientziak partekatzea da helburua, gainontzekoen bidaietatik guztiok zerbait ikastea. Bestalde, jendeak motorrekiko eta motorzaleekiko duen irudi txarra hobetzea gustatuko litzai-guke. Izan ere, filmetan eta serie estatubatuarretan motorzaleei nahiko irudi gutxiesgarria ematen zaie, eta jende askok uste du motorzale guztiok horrelakoak garela.

**Inma Acha:** Ahalik eta jende gehien batzea nahi dugu. Gero eta jende gehiago batu, orduan eta aberasgarriagoa izango da; berrelikadura hori landu nahi dugu. Fisikoki bidaiatu gabe, mundua ezagutzea da helburua.

“**Urteak daramatzagu elkarretaratze hauetara joaten”**

“**Motorraren bidez, ikusi eta ikasteko asko dagoela konturatzen zara”**

**Bizkaian egiten den lehenengo aldia izango da aurtengoa.**

**J.M.N.:** Bai. Hamaikagarren edizioa izango da aurtengoa. Orain arte beste hiri batzuetan egin izan da, Donostian eta Albaceten, esaterako. Baina Bizkaian egiten den lehenengo aldia da. Bilbon edo Barakaldon egin zitekeen, baina nahiago izan dugu Durangon egin, hiri txikiago batean.

**Nola iritsi zineten zuek hau antolatzerara?**

**J.M.N.:** Urteak daramatzagu elkarretaratze hauetara joaten, eta guk ere antolatu genezakeela pentsatu genuen. Betiko antolakuntzan ibiltzen direnei proposamena luzatu genien, ea Durangon egiteko aukerarik zegoen galdetuta, eta baiezkoa jaso genuen. Ilusio handiz hartu dugu erronka, eta gogo handiagaz gabiltza lanean, guztia ahalik eta ondoen irten dadin.

**Mas Curvas elkarrearen kolaborazioa duzue. Ekonomikoki**

**laguntzen dizue?**

**J.M.N.:** Ez, ez digu ekonomikoki laguntzen, baina antolakuntzan zein behar den beste edozertan laguntzen digu. Adibidez, hitzaldietarako aulkiak jartzen eta jasotzen. Horrelako bete-beharretan bere ekarpena egiten du taldeak. Ni neu elkarte horren parte naiz, eta asko eskertzen dugu kideek eskaintzen diguten laguntza.

**I.A.:** Guk irabazi asmorik gabe egiten dugu behar honetan, eta askotan gure poltsikotik jarri behar izaten dugu dirua.

**‘Iparrerantz’. Zergatik aukeratu duzue lelo hori?**

**J.M.N.:** Leloagaz bidaiatzeko ideia piztu nahi izaten dugu, eta, kasu honetan, iparraldean gaudenez, horregatik izan da gehienbat. Ipar lurmuturra eta Asia iparraldea landuko ditugu jardunaldi hauetan, eta horregaz ere jokatu nahi izan dugu. Gainera, gaztelaniaz egoki gelditzen da [Rumbo al norte], eta euskaraz ere indarra daukala iruditzen zaigu.

**Munduan zehar bidaiatzen ibili izan diren zenbait bidaiariren hitzaldiak programatu dituzue astebururako. Horretaz gainera, ba al du beste erakarpenik ekitaldi honek?**

**I.A.:** Funtsean, hori da erakarpen nagusia. Baina elkarretaratze hauetan egiten diren hitzaldiak ez dira beste hitzaldi batzuk bezalakoak, askoz ere gertuagokoak dira. Bestelako berbaldietan hizlaria etorri, berak prestatuta daukana bota, eta alde egiten du. Hemen, oster, lagunarteko giro bat sortzen dugu guztion artean, eta hitzaldia ematen duena lagun bihurtzen da gero.

**Zelan hasi zineten motor munduagaz harremanetan?**

**J.M.N.:** Niri txiki-txikitatik gustatu izan zaizkit motorrak. Aukera nuen guztietan joaten nintzen probak ikustera, eta kalean ikusten nuen edozein motorregaz ere gustura gelditzen nintzen. Betidanik izan dut motor bat izateko gogo, eta 30 urteagaz nire lehenengo motorra erosi ahal izan nuen. Orditik hona ez naiz gelditu, bizitzeko filosofia bat da.

**I.A.:** Ni askoz beranduago hasi nintzen mundu honetan. Hala ere, ezagutu bezain laster nahi izan dut gero eta gehiago sartu motorraren munduan.

**Suposatzen dut, entzundakoak entzunda, asko bidaiatzen duzuela zuek.**

**J.M.N.:** Ez nahi beste, baina saiatzen gara ahal dugunean irteeraren bat egiten, mundua ezagutzen.

**I.A.:** Motorragaz bezala, mundua ezagutzen ere berandu hasi nintzen. Baina orain badakit hori baino gauza hoberik ez dagoela. Jende asko ezagutzen duzu, makina bat kultura, eta ikusteko eta ikasteko asko dagoela konturatzen zara. Hala ere, bidaiatzeko dirua behar da, eta ezin dugu nahi dugun guztietan bidaiatu. Oraindik ez dugu asmatu jendeak nola egiten duen etengabe bidaiatzen ibiltzeko, ez dugu formula magiko hori ezagutzen. Guri, behintzat, diru dezente suposatzen digun gauza bat da bidaiatzea.

**Zer leku izan da gehien gustatu zaizuena?**

**J.M.N.:** Nire lehenengo bidaia Vietnamera egin nuen. Baina, hala ere, orain arte gehien gustatu zaidan bidaia Filipinetara



Acha eta Nuñez, motorzaleen elkarretaratzearen aurrerakoa



Motorrean munduari bira ematen 10 urte igaro ditu



**Eroski Abadiño-ko**  
**via**  
**xpress-ean**  
ORDAINKETA AUTOMATIKOA

**%2ko**  
**DESKONTUA**  
Urteko 365 egunetan  
24 orduak zabalik







antolatzaileak.



2009an, Alba de Tormesen (Salamanca, Espainia) batu ziren motorzaleak



2008an, Navalcanen (Ávila, Espainia) jarri zuten hitzordua.



en Emilio Scotti eta Nuñez.



Albaceteko (Espainia) topaketan aterako familia argazkia, 2010ean.

**Maiatzaren 15ean:**

-18:00etan: Elkarretaratzearen irekiera ekitaldia, luntxagaz.

**Maiatzaren 16an:**

-11:00etan: Elkarretaratzearen hasiera eta hizlarien aurkezpena.

-14:30ean: Bazkaria Agarreko jatetxean.

**Maiatzaren 17an:**

-10:00etan: Motor pasealdia, Mas Curvas elkarteak antolatuta.

egin nuena izan da.

**I.A.:** Nik ezingo nuke leku bakar bat aukeratu. Bisitatzen duzun toki orok dauka zerbait berezia, eta horregaz gelditzen zara.

**Anekdota asko izango dituzue...**

**J.M.N.:** Nik, egia esan, denbora asko emango nuke ditudan anekdotak kontatzen. Baina bat aukeratzekotan, Vietnamen gertatu zitzaidana aukeratu nuke. Lagunekin motorrean bidaiatzen nabilela, motorrean zerbait arraroa sumatu nuen. Konturatu nintzenerako bi zatitan banatu zitzaidan motorra. Inguruko gizon bat hurbildu zitzaidan, eta berak lagunduko zidala esan zidan. Motorra soldatu egin zidan, hemengo 0,40 euroren truke, eta bidaiari amaitu ahal izan nuen. Harrigarria izan zen.

**A.I.:** Bai, nik ere badut anekdotaren bat edo beste kontatzeko. Esaterako, Albanian ginela, egunetako batean berandutu egin zitzaigun, eta ez genuen non lo egin. Bertako emakume batek bere etxea eskaini zigun lo egiteko, eta afaria ere bere familiagaz partekatu genuen.

**Zer esango zenioke bertaratzeko zalantzan dagoen norbaiti?**

**J.M.N.:** Oso esperientzia aberasgarria dela esango nioke, eta ez dela etortzeaz damutuko. Edozeini luzatzen diot hurbiltzeko gonbita, bereziki motorrak eta bidaiak gustatzen bazaizkio. Ederra da besteen esperientzietatik mundua ezagutzea.



- **TEORIKOA ATERATZEKO IKASTARO TRINKOAK**

Atera ezazu teorikoa 5 egunean, %99k gainditzen du.

- CAP ikastaroak profesionalentzat
- Teoriko orokorra euskaraz ONLINE

**HEMEN GAUDE:**

**Urarka kalea, 20 • Tel.: 946 583 441 • ELORRIO**

**Aitor Martinez** | Motor gidari ohia (Abadiño, 1967)

## “Lau ogerleko lortu ahal izateko eskean ibili behar horrek nagia ematen zidan”

Hogei urteko ibilbidea amaitutzat eman du, baina ez dio aterik ixten itzulera posible bati



**> MOTORRA** Joseba Derteano Motor gainean ibilbide luze eta oparoa izan du Aitor Martinezek. Espainiako txapelketetan hainbat garaipen lortu ditu. Orain, beste bizimodu bat darama. 38 urte gaz, lehiaketa utzia du, eta Fly Group taldean kirol zuzendari lanetan dabil. Berrito itzultzeko atea zabalik duela dio, beti ere proiektu motibagarri bat baldin bada.

laz, denboraldi-aurrean, belau-nak nahikoa dela esan zizun. 2007an ezkerreko lotailu gurutatuan ebakuntza egin zidaten,

eroriko baten ostean. Antza denez, orduan ipinitako mentua denboragaz apurtu egin zen, eta hiru urtean lesio hori arrastaka erabili nuen. Egia esanda,

“*Atea irekita dago, beti ere Espainiako Motorsport Txapelketa lehiatzeko bada*”

motorrean lehiatzea ez zidan eragozten, baina, azkenerako, bizitzako ohiko gauzak egiten asko mintzen zitzaidan.

**Zenbat denbora behar izan zenuen sendatzeko?**

Bost astean ohiko bizitza egiten nabilen. Baina ez nintzen motor gainera bueltatu. Aurreko denboraldian aurrekontuak eskuetatik ihes egin zigun: erorikoak, ustekabeko gastuak... Batutakoa baino gehiago gastatu genuen. Geneukan aurrekontuagaz ezin zitekeen Espainiako Txapelketa bermeekin lehiatu.

Atzetik babesik ez badago, beti miserian zabilta, eta ez duzu gozatzen. Aurten, aldiz, parentesi bat egitea erabaki dut. Gainera, Espainiako Txapelketa irabazteko kalitatea izan dezakedala jakinda, lau ogerleko lortzeko nire burua saltzen ibili beharrrak edo eskean ibiltzeak nagia ematen zidan.

**Motor gidari izateari utzi arren, mundu horretan diharduzu.**

Bai, Fly Group taldearen kirol zuzendaritza daramat: babes psikologikoa, estrategia, pneumatikoei buruzko aholkuak, pilotatzeko eren gainera aholkuak... Horrelako kontuetan nabil. Lagunak ditut, eta gozatzen nabil.

**Zenbat lagun daude taldean?**

Nire adineko lagun bi daude, eta Bilboko gazte biri laguntzen ere bagabiltza: Markel eta Mikel Mata. Bikiak dira, eta 13 urte dituzte. Aholkuak eman, urduritasunak baretu... Oraingoan, horrelako gauzetan laguntzen diegu.

**Zuk izan zenuen horrelako babesik haien adinean?**

Nik ez nuen lagunduko zidan inor. Haiek baino geroago hasi nintzen, 17 bat urte gaz, eta gudara joaten den moduan joaten ginen zirkuituetara. Gaur egun bezain gertu ere ez zegoen zirkuiturik; ni Jerezera eta Montmeloraino joaten nintzen.

**Gustatzen zaizu gazteen kirol arloko ‘aita’ izate hori?**

Hartu-eman pertsonal ona badugu, gustatzen zait. *Feelinga* egon behar du. Bestela ez nuke nire denbora librea horretan emango; nik dagoeneko kirol honi urte eta sakrifizio asko eskaini dizkiot musu-truk. Beraz, ni bertan egon nadin, arlo pertsonala inportantea da.

**Motor gainean zenbiltzan sasoi-ko zeren falta sentitzen duzu?**

Beharbada, lasterketetan lortzen nuen kontzentrazio mailaren falta; ingurukoaz ahaztu, eta motorra, zirkuitua eta norbere burua besterik ez zeudenean lortzen nuen pentsamenduaren falta. Kontzentrazio maila horrek ematen zidan askatasun sentazioaren hutsunea sentitzen dut.

**Zeren falta ez duzu sentitzen?**

Ezusteak, erorikoak eta erorikoen ondorioz minutu batean alferrik joandako diruarena; hila-beiteak prestatzen ibili ostean, zerbait txarto irten, eta etxera zulo ekonomikoagaz bueltatzea... Gozatzeri joan, eta diruak nondik zatozen eta nor zaren gogorazten dizu.

**Zure motorrak, kaskoak, trofeoak. Zer egin duzu horiekin?**

Motorrak saldu egin nituen, diruagaz babes ofizialeko etxe bat erosteko. Pauso hori bizitzak emandako bultzada gisa hartu nuen, lehen aipatu dugun parentesia. Kaskoak eta lan-jantziak gordeta ditut. Garaikurrak, estimu handitan ditudan gutxi batzuk kenduta, oparitu egiten ditut. Asko ditut, eta baten bati benetan ilusioa egiten diodala ikusten badut, ez dit arduratzen oparitzeak.

**Posible da zu berriro motor gainera itzultzea? Aukerarik egon liteke?**

Estimulatzen nauen proiektu interesgarri bat sortzen bada, baliteke. Atea irekita dago. Baina beti ere Espainiako Motorsport Txapelketa lehiatzeko bada. Dibertitzeko bakarrik baldin bada, hori ditut nire lagunak, eta asteburuetan eurekin joan naiteke. Bueltatzekotan, Espainiako Txapelketa irabazten saiatzeko izango litzateke.

**Motor gainean mugan bizi izan zara. Eta ohiko bizitzan?**

Ez, orain lasaiago bizi naiz. Surf apur bat egiten dut, musika jarri... Bizitza lasaitasunez hartzen saiatzen naiz.

**AMAYA**  
AUTOEN KONPONKETAK S.L.



UAI, 1 INDUSTRIAGUNEA  
(Orozketa errepidea)  
48215 Iurreta / Bizkaia  
126 Posta Kutxa Durango

Tel.: 946 812 123 / Faxa: 946 203 818

e-maila: oficina@amayaautoreparaciones.com

www.amayaautoreparaciones.com

**SIMPLY** Durango

**GASOLINA-ZERBITZUGUNEA**

Proba ezazu gure zerbitzua

**automatric**

MATRIKULA-EZAGUTZE BIDEZKO ORDAINKETA



EMAN EZAZU IZENA WWW.AUTOMATRIC.COM WEBGUNEAN

**> EKONOMIA** Itsaso Esteban  
Gidatze eraginkorragorako hainbat gomendio eskainiko ditugu jarraian, ingurumenari eta geure poltsikoari ahalik eta kalte gutxien egiteko. Azken urteotan, ideia horietan oinarrituriko gidatze ikastaroak eskaintzen dituzte hainbat autoeskolak. Sarritan, erakunde publikoek babesturiko programak izaten dira, diru-laguntza publikoekin finantzaturakoak. Helburu horiek kontuan hartuta gidatzen ikasteko simulazioak egiten dira, eta mugikorrerako aplikazio bereziak ere badaude. Auto berria erosterakoan ere jarraibide horiek ematen dituen eskuorria banatzen dute.

**Gidariok errepidean dauzkagun hainbat jarreragaz lotura zuzena dauka erregai kontsumoak**

## Erregai kontsumoa murriztu, kutsadura gutxitu, eta dirua aurrezteko gidatze estiloa

Besteak beste, herriguneetan martxa luzeetan gidatzea da erregai kontsumoa murrizteko gomendioetako bat



Ingurumena eta geure ekonomia aintzat hartu, eta oinez, bizikletan edo garraio publikoan bidaiatzea izango da lehenetsitako aukera, baina, autoa hartzekotan, erregai kontsumoa murrizten lagunduko diguten trikimailu sinpleok ezagutzea interesgarria izan daiteke.

Estatuan, CO2 emisioaren %30 ibilgailuek kontsumitzen duten erregaitik dator, eta, zen-

bait iturriren arabera, oso altua da beste era batera gidatzen ikasiz gero aurreztuko genukeen diru eta kutsadura kopurua.

Azken urteetan, autoen fabrikazioan izan diren hobekuntzekin energia kontsumoa murriztea lortu da, baina, adituek diotenez, gidari bakoitzaren esku ere badago kontsumo maila murriztea. Gidarion hainbat jarreragaz lotura zuzena dauka erregai kontsumoak.

**Jarraibide hauei kasu eginez gero, tentsio gutxiagoz gidatuko dugu, eta istripuak gutxituko ditugu**

Jarraibide sinple hauei kasu eginez gero, batez beste, %15 murriztuko dugu erregai kontsumoa, eta, noski, horrek modu proportzionalan eragingo du CO2aren emisioetan eta sortzen dugun kutsadura akustikoan. Gainera, gidatze mota honek tentsio gutxiagoz eta erosoago jardutea dakarrenez, honako jarraibideei kasu egiten badiegu, istripu kopurua ere murriztu egiten da.

### GOMENDIOAK

- Autoa abiatzean ez zapaldu azeleragailua.
- Bigarren martxara aldatu sei metro ibili eta gero; hirugarrenera, 30 km orduko abiadurara ailegatzean; laugarrenera 40 km orduko iristean; eta bosgarrenera 50 km orduko zoazenean.
- Biraketa-abiadura baxuan ibili: gasolina motorretan 2.000 eta 2.500 inguruan mantendu biraketa-abiadura, eta 1.500 eta 2.000 artean dieseletan.
- Herrigunean ere martxa luzeetan gidatu.
- Abiadura konstantea mantendu.
- Aurreko autoarekiko nahikoa segurtasun tartegaz gidatu, bat-batean gelditu beharrik ez izateko.
- Minutu bat baino gehiagoko geldialdietan motorra amatatu.
- Gehiegizko pisurik ez eraman ibilgailuan.



Horrela gidatzen ikasteko simulazioak egiten dituzte autoeskoletan.



Jarraibide sinple hauei kasu eginez gero, %15 murriztuko dugu kontsumoa.

Grupo **CATALANA OCCIDENTE**

**RUEDA BILBAO ASEGURUAK**  
Jabier Rueda

Agirre Lehendakari kalea, 8 - 48200 Durango  
Tel.: 946 202 710 - Faxa: 946 816 577  
posta elektronikoa: [jrueda@segurosbilbao.com](mailto:jrueda@segurosbilbao.com)

**ARRIBIDE**



Arriandi ind. P.1  
48215 IURRETA  
-Bizkaia-

Tel.: 946 818 381



**RENAULT**  
Passion for life

Bigarren eskuko ibilgailuek espazio zabala behar zuten, eta eman egin diegu.

# GAURSA OCASIÓN

# ESPAZIO ZABALA

## BIGARREN ESKUKO IBILGAILUAK IURRETAN

Kalitate handia eskaintzen dugulako (ehun puntutan baino gehiagotan errebisatutako autoak); 24 hilabeterainoko bermea ematen dugulako; stock handia eta marka guztietako ibilgailu-aukera zabala dugulako; gure prezioak azken prezioak direlako; finantziazio-baldintza ezin hobekak eskaintzen ditugulako... Eta beste hainbat arrazoi tarteko, bigarren eskuko ibilgailu baten bila bazabiltza, zatoz **IURRETAKO GAURSA ZENTRO HANDIRA.**



**RENAULT**  
**OCASIÓN**

ZER EZ ZENUKE EMANGO HORRELAKE AUTO BATENGATIK

**GAURSA**

Arriandi, 12. Tel. 94 620 33 00. IURRETA [www.gaursa.com](http://www.gaursa.com)

# Kurutziagako 40 ikaslek teknologia berrien inguruko antzezlan bi aurkeztuko dituzte

Gaur eta bihar, Durangoko San Agustinen emanaldiak eskainiko ditu Kurutziaga ikastolako antzerki taldeak



Ikuskizunen azken entseguak egiten ibili dira ikasleak San Agustín kulturgunean, asteon.

**> ANTZERKIA** Itsaso Esteban Ikasturte honetan Durangoko Kurutziaga ikastolako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren mailako ikasleek presaturiko antzerki obra bi hartuko ditu, asteburu honetan, San Agustín kulturguneak. Gaur eta bihar izango dira emanaldiak, eta, urtero bezala, sarrera guz-

tiak saldu ostean, aretoa bete-beteta dagoela erakutsiko dute ikasturteko lana.

San Agustineko emanaldien ostean, maiatzaren 18an eta 19an, Durangoko beste ikastetxe batzuetako ikasleentzako emanaldi bereziak egingo dituzte. “Proiektu honek urte asko dauzka, eta hasieran Durangoko

San Agustineko emanaldien ostean, maiatzaren 18an eta 19an, beste ikastetxeentzako saio bereziak egingo dituzte

ikastetxe gehienetatik etortzen ziren emanaldietara”, azaldu

du Jose Martín Urrutia *Txotxe* proiektuaren bultzatzaileak. “Duela urte batzuk krisialdi moduko bat egon zen, eta aurten berriro lortu dugu ikastetxe askotatik etortzea gure lana ikustera. Ez dugu hartu-eman hori apurtu gura”.

## Teknologiak gogoeta

Bi ikuskizun dira, eta 40 ikasle dabilta lanean. *Fig konparsillaren asmakizun mundiala* da lanetako bat. “Munduari sistema operatibo berri bat aurkeztuko diogu”, aurreratu du: “Birziklatu-riko materialekin egindako software eta hardware sistema garatu dugu: piper eta zainzuri poteak telefono mugikor bilakatu ditugu!”.

*KlinK* izeneko bigarren ikuskizunean, bestalde, “gure komunikatzeko moduetan teknologia berriek zer eragin duten” kontatuko dutela azaldu du Txotxek. Galdera bat planteatuko diete gazteek San Agustineran bertaratzen direnei: “Benetan aldatu gaituzte teknologia berriek, ala lehengoak gara muinean?”.

Aktore zein dantzari lana egiteko, taldeko 40 kideak igoko dira gaur eta bihar San Agustineko oholtzara. Taldeko partaide gehienentzat antzerkiagaz eta oholtzagaz daukaten lehenengo hartu-eman da hau.

Txotxek proposaturiko tes-tu zirriborroaren bueltan ekin zioten, ikasturte hasieran, asteburu honetan aurkeztuko duten obra sortzeari. Hiru tailerretan ibili dira: koreografiak lantzen dituen taldea dago batetik, atrezzo sortzen duena bestetik, eta istorio guztiari lotura ematen dion dramatizazioa jorratzen duena, azkenik. Aste-lau eskola-ordu ematen dituzte antzerki tailerretan. “Ordu dezente dira, baina batzuetan ez da nahikoa izaten”, dio Txotxek barrez.

Urtetako lanagaz antzerkia Kurutziaga ikastolako hezkuntza proiektuan txertatzea lortu dutela azpimarratu du. Izan ere, hezkidetzan aurrerapausoak emateko eta lan kooperatiboan jarduten ikasteko aukera paregabea eskaintzen du antzerki tailerrek, alderdi artistikoa lantzeaz gainera. “Gaur egun, eskari oso handia dago, ikasle gehienek gura dute antzerki tailerretan parte hartu. Baina egitura arazoak dauzkagu eskari handi horri erantzuteko, eta zozketa bidez osatu behar izaten dugu taldea”.

# Erdi Aroko gazteluei buruzko hiru berbaldi, Durangoko museoan

VI. Arkeologia eta Historia Jardunaldia hasi da

## > BERBALDIK

Arkeologiari eta historiari buruzko jardunaldien seigarren edizioa hasi dute, asteon, Durangoko Arte eta Historia Museoan. *Erdi Aroko gazteluak Euskal Herrian* izenburua du aurtengo zikloak, eta 19:00etan hasiko dira hitzaldi guztiak.

Maiatzaren 21ean eta 28an izango dira jardunaldiaren barruko hurrengo hitzorduek. Juan Antonio Quirós EHUko arkeologia katedradunak *Los castillos medievales y los poblados fortificados de Álava y Treviño* berbaldia eskainiko du, datorren egunean. Azken urteetan Trebiñoko konderrian egin dituzten hainbat arkeologia lanen inguruko azalpenak emango ditu Quirosek. Araba hegoaldean, gotorturiko hainbat herrixka sortu ziren X. eta XII. mendeen artean, eta horrek gizarteko botere harremanetan zelan eragin zuen azalduko du arkeologoak.

Maiatzaren 28an, Astxikiko (Abadiño) gaztelua hartuko du

berbagai Armando Llamosas Eusko Jaurlaritzako arkeologoak, Durangon: *El castillo de Astxiki. Una atalaya sobre el Duranguesado* hitzaldia eskainiko du. Euskal Herrian Erdi Aroko gazteluen inguruan daukagun erreferentzia bakanetakoa da Abadiño hori. Ikerlari batzuen ustez, Nafarroa eta Gaztelaren arteko borroken kokagunea izan zen Astxiki.

Maiatzaren 28an, Astxikiko (Abadiño) gaztelua hartuko du berbagai Armando Llamosas arkeologoak

Aranzadi zientzia elkarteko Juantxo Agirrek zabaldu zuen, atzo, arkeologiari eta historiari buruzko jardunaldien aurtengo edizioa. Amaiurko (Nafarroa) gazteluari buruzko hitzaldia eskaini zuen. *Amaiurko gaztelua: arkeologia eta oroimen historia* izenburukoa.



Xabi Donosti, Garbiñe Insausti eta Ana Pimienta dira obran diharduten aktoreak.

# ‘HappyEnd’, umore beltzeko antzezlan, Elorrioko Arriolan

Maiatzaren 22an, 22:00etan, eskainiko du Vaivén taldeak ‘HappyEnd’, Elorrion

## > ANTZERKIA

Borja Ortiz de Gondraren tes-tuan oinarriturik, Iñaki Rikartek zuzenduriko *HappyEnd* antzezlan dute programatuta datorren barikurako Elorrioko Arriola antzokian. Vaivén Producciones antzerki taldearen proiektua da *HappyEnd*, umore beltza oinarri duen obra.

Jendeari suizidatzen laguntzen dion elkarte klandestino baten istorioa kontatzen du obrak. Beste kide bati bere buruaz beste egiten lagunduz gero, euren



momentua iristean helburua betetzen lagunduko dien norbait alboan izango dutela ziurtatzen die elkarteak kideei.

Jendeari suizidatzen laguntzen dion elkarte klandestino baten istorioa kontatzen du antzezlanak

Lanaren sinopsian taldeak adierazten duenaren arabera,

krisiari esker loraturikoa da antzezlanean ageri den elkar-tea, “baina, azkenaldiko kimu berdeen eta baikortasunaren ondorioz, gero eta gutxiago dira suizidak”. Proiektu honeguz, “krisiak estutu bakarrik ez, ito ere egiten duela sentitzen duten pertsonei” ahotsa eman nahi izan diete Vaivén taldekoek.

Xabi Donosti, Garbiñe Insausti eta Ana Pimienta aktoreek dihardute oholtzan, eta Iñaki Salvador musikariak sortu du musika.



# GREMIOEN GIDA



## DEKORAZIOA

**Jaio barnizatuak**

- Markoen, ateen, zokaloen, armairu aurrealdean eta era askotariko altzarien lakadura.
- Pintura eta pintura apaingarriak.
- Era guztietako zaharberitzeak egiten ditugu.

Eitua Industrialdea, 45 Garain A - Berriz  
Tel.: 946 824 143 - 658 758 421  
Faxa: 946 824 895 - info@jaiobarnizatuak.com



## GARBIKETA

**AZKARGI**  
GARBIKETAK

Bulegoetako eta Industrietako mantentze-lanak  
Obra osteko garbiketa  
Kristalazatuak eta abar  
Goietla, 10 - 2 esk. - ELORRIO  
Tel.: 946 820 991



## LOREZAINZA

*Jardines*  
**Patxi**  
*Lorategiak*

Mantenua eta Diseinua  
Landaketa eta Inausketak  
Ureztatze sistemak  
Barrualde eta Kanpoaldea  
Eskatu zure aurrekontua beldur barik

Montevideo, 23. 1. ezk PATXI  
48200 DURANGO 696 463 085



## ITURGINTZA

**urtiaga**

Proiektu eta Erreformak, S.L.  
Gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZI, BEROGAILU  
AZULEJU, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOI  
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENAK

Solagurion kalea 3 - Tel.: 946 614 474 - Faxa: 946 215 374  
Emaila: urtiaga@urtiaga.info - MATIENA-ABADIÑO

**Mallabiena**

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industriagunea, 6  
48215 Iurreta • Tel.: 94 681 88 62  
mallabiena@mallabiena.com

**K21**

**Ubide**  
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

188 PK.  
48200 DURANGO  
94 603 05 06  
625 70 22 08  
ubide@euskalnet.net



## Profesional onenak zure zerbitzura!

**> ESKALADA** Joseba Derteano Elorrioko eskolako eskalada taldeko hogeitaz gaztek Bizkaiko Eskolarteko Eskalada Txapelketan parte hartu zuten joan zen asteburuan. Elorrioko eskaladarako afizioa bizi-bizirik dagoela islatzen du kopuru horrek. Marta Camara, Aitziber Urrutia eta Martin Urrutia zaletasun horren erakusgarri nagusiak dira. Nor bere adinean erreferente da Euskal Herri mailan, eta Espainian ere onenen artean dabilta.

Euskadiko Boulder Txapelketan podiumera igo dira hirurak. Marta Camarak txapelketa

Martak Euskadiko Boulder Txapelketa irabazi du; Martin bigarren sailkatu da, eta Aitziber hirugarren

irabazi du, Martin Urrutia bigarren geratu da, eta Aitziber hirugarren. Euskadiko selekzioagaz, Espainiako Zailtasun Kopan ere aurreneko hamarren bueltan ibili dira hirurak, Josean Mulas hautatzailearen aginduetara.

Neba-arrebei etxetik dator kie afizioa: “Umetan familiagaz eskalatzeraz joaten ginen Frantziara eta beste toki batzuetara”, gogoratu du Aitziberrek. Marta Txintxirri ikastolan dagoen eskalada hormara zaletu zen: “Ez ninduen inork behartu. Neuk erabaki nuen probatzea, eta ha-

## Elorrioko eskaladarekiko zaletasuna oso bizirik mantentzen dute hainbat gaztek

Aitziber eta Martin Urrutia neba-arrebak eta Marta Camara dira zaletasun horren adibide onenak



Martin Urrutia, Aitziber Urrutia eta Marta Camara Elorrioko eskalada horman.

rrapatu egin ninduen”. Martin ere makina bat bider ibili da gora eta behera eskalada horma horretan. Gaur egun, Euskal Herriko horma handiengan entrentzen dute, Aretxabalean.

Etorkizunean “boulderrean zein eskaladan” jarraitzeko goa adierazi du Martak, eta bere

Euskadiko selekzioagaz emaitza oso onak lortu dituzte Espainiako Zailtasun Kopan

lagun biek asmo bera dute. Aire librean ere ez zaie esperientziarik falta. Atxarteko (Bizkaia), Araotzeko (Gipuzkoa) eta Gaubeako (Araba) paretak gertutik ezagutzen dituzte, eta baita Greziako Kalymnos irlan daudenak ere. Ez dira aritzeagaz bakarrik konformatzen: “Zailtasun mai-

laz igotzea gustatzen zaigu”. Alexandra Puzio, Chris Sharma, Jaim Kim eta Patxi Usobiaga dira euren erreferenteetako batzuk; orain behetik gora begiratzen diete tontorrera heltzea lortu duten izarrei, eurak ere goranzko bide bera egin guran dabilzan bitartean.

## Athletici buruzko informazioa euskaraz zabalduko du ‘Geuria.info’-k

Durangaldeko hiru lagunek aurten sortu dute zuri-gorri buruzko webgunea



Koldo Zarate, Markel Onaindia, Urko Aristi eta Xabier Zabala San Mamesen.

### > HITZARMENA

Aurten jaio da *Geuria.info* webgunea, Durangaldeko hiru lagun eskutik: Xabier Zabala, Koldo Zarate eta Markel Onaindia. Tokikom elkarteagaz hitzarmena sinatu dute, eta *Anboto.org* webguneko komunitatean

ikusgai egongo dira bertako artikuluak. Duela urtebete sortu zen Zurigorriak Euskaraz elkartearen webgunearen sustatzailea, eta Xabier Zabalak azaldu du arrazoia: “Ez dira hedabide asko Athleticen inguruan euskaraz dihardutenak. Baina ath-

leticzaileen artean bada esparru euskaldun zabal bat, eta horra iristea da gure asmoa. Futbolaren indarra eta Athleticen gizartean duen eragina kontuan hartuta, uste dugu gure lanagaz euskararen normalizazioan eragin dezakegula. Bokazio horregaz jaio da elkarte”.  
Tokikomeko presidente Urko Aristik adierazi du tokiko komunikabideek informazio xeheagoa eskaini ahaliko dietela zaleei: “Euskarazko toki komunikabideen helburu nagusia euskararen sustapenean eragitea da; alde horretatik oso hurbil sentitzen gara *Geuria.infotik*”.

Hitzarmena asteon formalizatu bada ere, lankidetzaz dagoeneko martxan dago, eta horren adibide da *Geuria.info* eta *Uriola.eus* atariaren artean lantzen dabilzan dokumentala, Errege Kopako finalaren aitzakiaz.

## Aramendia Espainiako Kopako lider jarri da

Aldapa gora eraso jo, eta bakarrik helmugaratu zen

### > TXIRRINDULARITZA

Iurretako CAF Transport Engineering taldeko Maialen Aramendia nafarra Espainiako Kopako lider dago kadete mailan. Joan zen asteburuan, Galizian jokatu zen laugarren proba puntuagarria irabazita lortu zuen maillot horia.

Aramendiak ordura arte sailkapen orokorreko lider zegoen Nekane Gómezen pataldia ederto aprobetxatu zuen

Pituco mendatean gora. Gómez ezinean zebilela ikusita, Aramendiak eraso jo, eta ihes egin zuen. Inork ezin izan zion bere erritmoari eutsi, eta bakarrik helmugaratu zen.

Nagusien mailako lasterketak ez zuten aldaketarik eragin sailkapen orokorrean, eta Bizkaia-Durango taldeko Lourdes Oyarbide txirrindulariak 23 urtez azpiko lider izaten jarraitzen du.



Aramendia helmugara sartzen.

# Marea berdearen esperantzari helduta, bosgarren partidua amets

Guadalajaran partidu biak galdu ostean, etxeko biak irabaztera behartuta dago



Bosgarren partidu baten beharrik balego, Guadalajaran jokatu litzateke. Zornotza Saskibaloia Taldea

**> SASKIBALOIA** J. Derteano Zornotza Saskibaloia Taldeak aldapa gora du iguera faseko finalerdietako kanporaketa. Guadalajaran (Espainia) partidu biak galdu ostean, geratzen diren hirurak irabaztera beharrik dago. Ezinezko dirudiena posible egiteko lehenengo pausoa gaur bertan eman beharko du etxean, eta klubak zaleei dei egin die Larrea bete dezaten.

Gaur, 19:45etik aurrera, irabazteak bakarrik balio du. Garaipena lortzen badu, domekan, kanporaketa berdintzeko au-

keraz izango du Larrean bertan. Bosgarren partidu baten beharrik balego, Guadalajaran jokatu litzateke.

Larrea kiroldegira kamiseta edo jantzi berdeekin joateko deia egin die klubak Zornotzako zaleei

Klubak badaki zaleek garrantzi handia izango dutela kanporaketaren nondik nora-

koan, eta berdez jantzita joateko eskatu diete. Playoffetako aurrerako neurketetako prezioekin jarraituta, bazkideentzat 3 euro izango da sarrera, eta bazkide ez direnentzat 8 euro.

**Guadalajara talde indartsua** Guadalajara talde indartsua da; beharbada, mailako talderik sendoena gaur egun. Kanporaketa hasi aurretik, zornotzarrek bazekiten hori, eta jokatu partidu biek ustea berretsi dute.

Guadalajarako porrot biek ez dute batak besteagaz zerikusir-

rik. Lehen partiduan, Guadalajaran erritmoak ustekabean hartu zuen Zornotza. Konturatu orduko 12-0 galtzen zebilen, eta hasierako desabantaila hori astunegia izan zen Mikel Garitanoandiaren mutilentzat. Markagailuan hurreratzen zirenean, Guadalajarak berriro ihes egin zuen. Azkenean, 67-57 galdu zuten. Kalanj (13), Carreto (11) eta Schreiber (10) izan ziren Zornotzako saskiratzaile nagusiak.

Bigarren partiduan, Zornotzak hortzak erakutsi zizkion Guadalajarari. Markagailuak (82-67) ez du islatzen kantxan izan zen parekotasuna. Atsedendira aurretik heldu zen Zornotza (38-41), eta hirugarren laurden eskas baten erruz galdu zuen partidua. Epailearen lanak ere ez zuen askorik lagundu. Hiru minutuan sartu ziren bonusean, eta horrek asko baldintzatu zuen zornotzarren lana. Borovnjak (15), Salazar (11) eta Schreiber (10) izan ziren Zornotzako saskiratzaile nagusiak.

Porrotaz gainera, bigarren partidu horretan, Cruz eta Kalanj jokalariek lesionatu egin ziren.

## Erritmo bizia da gakoa

Zornotzak badaki non egin diezaiokeen min Guadalajarari. Erritmo bizian jokatu, eta trantsizio arinak egiten ahalegindu behar du. Zornotzarentzat aproposa izango litzateke joan-etorri askoko partidu bat.

Zornotzak talde gisa funtzionatu behar du, eta Carreto, Schreiber eta Garcia lako jokalariek euren mailarik onena eskaini beharko dute.

## ADITUAREN TXOKOA



**Kepa Arroitauregi**

Pilota teknikaria

## Pozak eta tristurak

Pilota munduan, beste edozein arlotan bezala, denetarikoz bizi beharra dago, eta dena ahalik eta era onenean jasotzen saiatu. Azken egunotan tristurak nire barnea hartu du. Pilotari gazte (35 urte) eta berezi batek agur esan digu. Askorentzat ia ezezaguna izango den arren, mundu zabalean pilotari oso ezaguna zen Fernando Medina joan zaigu. *Momo* ezinezke ezagutzen genuen guztiok pilotari mexikarra, Asegarcerekin debutatu, eta txapeldun izatea lortu zuena. Eskuz, Euskal Herriaz kanpo sortutako pilotari handiena izan da *Momo*, eta, horregatik, bere galera handia da nazioartean. Ezaguna nuen, eta hortik nire tristura.

Era oso ezberdinean, baina *Momorekin* une asko bizitako beste pilotari batek ere tristuran murgildu zuen pilotazale bizkaitarra orain pare bat aste-edo. Pablo Berasaluzeri buruz ari naiz. Binakako finaleko porrotak burumakur utzi zuen, eta oso triste bere jarraitzaile andana. Dena den, hark ere aurrera egingo du, seguru.

Hala ere, denari buelta eman beharra dago, eta aurrera segi. Horretarako arrazoiak ere baditugu, eta aurrera era positiboan begiratu behar dugu. Pilota bizi-bizirik dago gure eskualdean, eta horren lekuko gaur Abadiñoko trinketeko San Trokaz finaletan izango den giroa –ume zein nagusien finalak tarteko–, Matienako sanprudentzioetan bizitakoak, Durangoko Peter zenaren omezeko lehiaketa non ume eta gazte lehiatzen dabilzan, Mallabiko Biharko Izarrak... eta hemendik aparte gure pilotariak ematen ari diren maila gogoan. Animo denei eta ekin!

## San Trokaz Trinket Txapelketako finala, gaur

Mikel Gonzalez berriztarra da finalistetako bat

### > Trinketa

San Trokaz Trinket Txapelketako finala jokatu dute gaur, 18:45ean, Zelaietako Tornosolon trinketean. Mikel Gonzalezek eta Inhar Ugartek Gandiaga eta Landaren aurka jokatu dute. Gonzalezek eta Ugartek

Lamberte eta Amulet menderatu ondoren (40-35) sailkatu dira finalera.

Lehen mailako finalaren aurretik promesen mailakoa jokatu dute. Bertan Fullaondok eta Bilboak Ziarrustaren eta Uriberen aurka jokatu dute.

## Selekzioaren gaineko erakusketa, Elorrion

Futbol selekzioaren 100 urteko bidea jasotzen du

### > FUTBOLA

1915ean jantzi zuten lehenengo aldiz euskal futbol selekzioaren elastikoa, eta, mendeurren hori gogoratzeko, *Ametsen bila* izeneko erakusketa antolatu dute. Euskal Herri osotik dabilen erakusketa ibiltaria Elorrioko

Iturri kultur etxean ikusi daiteke egunotan.

1915eko urtarrilaren 3an, Bilboko San Mames estadioan Kataluniaren aurka jokatu partidu lehen partidutik abiatu eta gure egunotara iristen da erakusketak biltzen duen edukia. Guz-

tira, 100 objektu baino gehiago ikusi daitezke: adibidez, elastikoak eta jantziak; federazioaren banderak; baloak; Athleticeko, Errealeko eta Eibarko jokalarien botak eta eskularruak; San Mames futbol zelaiaren maketa; argitalpenak; argazkiak; eta epaileen banderak.

Entrenatzaileei eskainitako gune bat ere badago. Gune horretan, 1937ko selekzio jokalarien izenekin hamaika aulki daude, eta askotariko dokumental eskaintzen dituzte.

**DURANGALDEKO LANBIDE IKASTETXEA**  
2015-2016 ikasturtea



**OINARRIZKO LANBIDE NEZIKETA (OLH)**



**SUKALDARITZA**



**ELEMENTU METALIKOEN FABRIKAZIOA**



**HEZAZARITZA-LOREZANTZA**

**doñainik**

**ELEKTRIZITATE ETA ELEKTRONIKA**

Tfnoo: 946 232 522  
 Lauñada kalea 4, 48200 DURANGO  
[www.miturango.org](http://www.miturango.org)



# Azken lau partiduak irabazi ostean, Kulturalak bere esku du playoffetarako sailkapena bihar

Tabiran, Portugalete menperatzen badu, igoera faserako sailkatuko da Durangoko Kulturala



Durangoko Kulturalaren aurtengo taldean Durangaldekoak dira jokalaririk gehienak.

**> FUTBOLA** Joseba Derteano Azken lau partiduak segidan irabazi ostean, Durangoko Kulturala egoera ezin hobean heldu da Hirugarren Mailako azken jardunaldira: laugarren postuan kokatuta, ez dago

beste emaitzen menpe. Bihar, 18:00etan, etxean Portugalete menperatzen badu, Bigarren B Mailara igotzeko playoffetara sailkatuko da.

Portugalete Hirugarren Mailako liderra da, eta inork ez

dio postu hori kenduko. Beraz, bihar ez du ezer jokoan. Hala ere, Imanol de la Sota Kulturalako entrenatzailea ez da fidatzen: "Beharbada, normalean jokatzen ez duten jokalaririk batzuek jokatuko dute, baina, talde oso

ona dutenez, denak dira arriskuak; baina gu Tabiran nahiko indartsuak gara, eta munduko ilusio guztia dugu". Gainera, partidu erabakigarri horri begira ez du bajarik.

Tabiran partiduaren garrantziaren adinako giroa espero du Imanol de la Sotak. Zaleen haupoa inoiz baino beharrezkoago dute: "Denen laguntza behar dugu. Taldeak lan handia egin du, eta konpromiso maila ezin hobe erakutsi du. Gainera, etxeko jokalaririk dira ia denak".

Beasain bosgarren tokian dago, Kulturalagaz puntuetara berdinduta; Zalla puntu bat atetik dute durangarrek, seigarren postuan. Berdinketa gertatuko balitz, Kulturalak Beasainek baino gol alde hobe du. Zallagaz, aldiz, denean berdinduta dago; bai elkarren kontrako emaitzetan, bai gol diferentzian.

## Iurretako nesken taldea desagertu egingo da

Jokalaririk Ezkurdiren talde berrira joango dira

### > FUTBOLA

Nesken Iurretako futbol taldea desagertu egingo da. Azken urteetan Iurretako taldeko zuzendaritzaren aldetik laguntza baino "oztopo" gehiago jaso dutela dio Iera Gerrikabeitia jokalaririk. "Gaur egun, hamaika bat jokalaririk gaude, eta federazioak hamabosteko taldea eskatzen du. Baina klubetik esan ziguten hogeit hamar jokalaririk ezin duzela talderik aterako. Hamabost

batzea gaitza bada, imajinatu hogeit hamar. Ez dute gugatik ezer egingo, eta nekatuta gaude", adierazi du. Jokalaririk batzeko zailtasuna ere bada beste faktore bat.

Baina irtenbide bat bilatu dute. Ezkurdi futbol taldeak gazte mailara arteko taldeak ditu. Beraz, alde guztien adostasunagaz, datorren denboraldian nesken nagusien mailako Ezkurdi taldea sortuko dute Iurretako taldean ibili direnekin batera.

## Errugbi txapelketa nesketan, hilaren 30ean

Durango izango da lehia; izen-ematea hasi dute

### > ERRUGBIA

Durango Rugby Taldeak emakumeei bideratutako Sapuseven txapelketa antolatuko du maiatzaren 30erako, Durangoko Arripauseta zelain. Emakumeen artean errugbia sustatzeko helburuz antolatuko dute.

Zazpi jokalaririk osatutako taldeek lehiatuko dute txapelketa. Izen-ematea e-mail bidez ([drt@durangorugby.eus](mailto:drt@durangorugby.eus)) edo telefono bidez egin daiteke (946 200 007).

Taldeko 50 euro da, eta maiatzaren 19a da izena emateko azken eguna.

### Gizonen azken partidua

Bestalde, gizonen talde nagusiak igoera faseko azkenengo partidua jokatuko du Katalunian, domekan, 12:00etan, San Cugat taldearen aurka. Ez du finalera sailkatzeko aukerarik. Finala San Cugat eta Alcobendas taldeen artean izango da.

### AGENDA

#### > FUTBOLA

##### HIRUGARREN MAILA

**Durangoko Kulturala - Portugalete**

· Zapatuan, 18:00etan, Tabiran.

##### OHOREZKO MAILA

**Elorrio - Urduliz**

· Zapatuan, 16:30ean, Eleizalden.

**Iurretako - Indautxu**

· Zapatuan, 18:00etan, Larrakozelaian.

##### MAILA GORENA

**Abadiño - Aranguren**

· Zapatuan, 16:00etan, Astolan.

##### LEHEN ERREGIONALA

**Ezkurdi - Ugao**

· Zapatuan, 16:00etan, Arripausuetan.

##### BIGARREN ERREGIONALA

**Zorrontzako - Plentzia**

· Domekan, 17:30ean, Larrean.

#### > SASKIBALOA

##### BIZKAIKO KOPA

**Zornotza - Santurtzi**

· Domekan, 12:30ean, Ixerbekoan.

#### > PILOTA

##### SAN TROKAZ TRINKET TXAPELKETA

**- Benjaminak eta kimuak - (3. eta 4. postuak)**

**- Olaburu A - Olaburu C**

**- Markina - Kurene**

· Barikuan, 17:30ean, Tornosolon.

**- Benjaminak eta kimuak - (finalak)**

**- Markina - Olaburu**

**- Olaburu - Zaldia**

· Barikuan, 17:30ean, Tornosolon.

##### Promesak eta eliteak (finalak)

**- Fullaondo-Bilbao / Ziarrusta- Uribe**

**- Gonzalez-Ugarte / Gandiaga-Landa**

· Barikuan, 17:30ean, Tornosolon.

##### BIHARKO IZARRAK TXAPELKETA

**- Errandonea-Aizpitarte / Olano-Arratibel**

**- Labaka-Imaz / Arteaga-Galarza**

· Zapatuan, 17:00etan, Mallabian.

**- Elordi-Martinez / Arteaga-Erostarbe**

**- A. Etxebarria-Mateo / Olano-O. Etxebarria**

· Maiatzaren 21ean, 21:15ean, Mallabian.

[www.unieibarermua.eus](http://www.unieibarermua.eus)

[uni@iesunibhi.com](mailto:uni@iesunibhi.com)

TEL: 943 208444

943 176257

# IES UNIBHI

[www.facebook.com/iesunibhi](http://www.facebook.com/iesunibhi)

@UniEibarErmua

## HEZIKETA ZIKLOEN AURREMATRIKULA MAIATZAREN 25TIK EKAINAREN SERA

### HEZIKETA ESKAINTZA: A ETA D EREDUAK

-HEZIKETA FISIKOA

-INFORMATIKA

-MARKETING ETA MERKATARITZA

-ADMINISTRATIOA

### + PROIEKTUAK

- PRAKTIKAK ATZERRIAN

- HEZIBI - LANBIDE HEZIKETA ALTERNANTZIAN

- IKASKUNTZA ESZENATOKIAK

- OSASUNAREN ZAKO PROGRAMA

- ENPRESA BIRTUALA

- UNI ENCOUNTER

- URRATS BAT

**Ate irekien jardunaldiak Maiatza 20, 16:30etatik 19:00etara**

## **Berbaz**

Victor Pozas | Komunikazio irakaslea | Bilbo, 1950

# “AEBek Irak inbaditu izan ez balute, gaur egun ez litzateke Estatu Islamikorik existituko”

Sirian eta Iraken du indarra Estatu Islamikoak, eta 20.000 atzerritar baino gehiago daude bertan; Elren sorrera eta Ekialde Ertaineko egoera azalduko ditu Pozasek Elorrion emango duen hitzaldian



**> BERBAZ** Aitziber Basauri  
Kainaberak gonbidatuta, Estatu Islamikoa (EI) hartuko du hizpide Victor Pozasek, maiatzaren 20an. Komunikazio irakaslea da EHUan, eta Hegoa nazioarteko kooperazio eta garapenari buruzko ikerkuntza institutuko kidea ere bada.

**Zelan sortu da Estatu Islamikoa?**  
Irakeko gerran du jatorria. Al-Zarquik, Irakeko Al-Qaedako liderrak, sortu zuen Estatu Islamikoaren (EI) enbrioia –AEBen bonbek hil zuten–. AEBen kontrako borroketan aldizkako erakundea izan zen Irakeko Al-Qaeda. Baina, duela lau urte, Siria gerran sartzean, Irakeko Al-Qaedako buruetako bat zen Al-Baghdadik berezko ikusi zuen Siriara zabaltzea.

### Zergatik?

Sirian gobernuaren aurka altxatutakoak sunitak direlako. Estatu Islamikoan sunitak izanik, Irakeko –xiitek agintzen dute, AEBek sunitak suntsitu ondoren– eta Siriako errebolta ordezkatzen ditu. Eta, zelan ez, euren interes propioak ere defendatzen dituzte, terroristatzat hartu arren. Asko direla? Askoz gehiago izan daitezke orandino. Mendebalderen kontrakoa baino xiiten kontrakoa da Elren borroka. Sirian erakunde sunita batzuen kontra egin du, bai, baina, Al-Assaden gobernuaren kontrako borrokan bere hegemonia mantentzeko da hori.

### Siria ia osoa dute euren esku?

Siria, eta Irak ere bai. Mosul (Irak) hiria

hartu zuen iaz, xiitek osatutako armada armak utzi ondoren. Berez, armada okupatzailea zen, populazioa, ohiturak... sunitak ziren eta.

### Estatu Islamikoa sunitek osatzen dute.

Bai, eta estatu suniten babesa du: Arabia Saudi, Arabiar Emirerri Batuak eta Turkiak armekin eta diruagaz laguntzen diote.

### Elren jatorriaren atzean AEBak daude?

Espekulazioak dira. EI bonbardeatzen dabilta, soldaduak bidaltzen... Egia den arren AEBekin aliantza garrantzitsuak dituztela Elri laguntzen dioten herriek.

“

*Gu beldurtzen gaituenak beste batzuk adoretu egin ditu”*

### Ez du koherentzia handirik.

Ihes egiten digun koherentzia bat egongo da. Ekialde Ertainean hegemonia nork duen dabilta erabakitzen: gobernu sunitek (Arabia Saudi, Arabiar Emirerri Batuak eta Turkia) edo Iranek (gobernu, erlijio eta ohitura xiitekin). Interes propioen kontrako efektua eragin zuten AEBek, Saddam Hussein boteretik kentzean, gobernu xiita sartu zen eta. Islama sortu zenetik Ekialde Ertainaren erdigunea (Iran, Irak eta Siria) xiiten esku dago lehenengoz. Horrek estatusunean jarri du suniten hegemonia; batez ere, Arabia Saudin. Interes propioak daude.

### Sortutako gerren ondorio da EI.

Ez. AEBek Irak inbaditu izan ez balute, ez legoke Estatu Islamikorik. Estatu Islamikotik dioten bezala, modu ilegalean eta indar masiboa erabiliz euren herria okupatu gura zuen indar atzerritar baten kontra hasi zuten borroka.

### Europak ez du ezer esan.

Gauza gehienetan lez, beste alde batera begiratzen du. Potentzialik ez du, beste maila batean jokatzeko, baina zeozer egin dezakeela uste dut; baina ez du gura. Europako Batasunak Al-Assaden kontrako talde errebeldeak –EI izan ezik– ba-

besten ditu Sirian, eta handik ehunka mila errefuxiatu dabilta Europara sartu guran (asko Mediterraneoan hil dira). Ekialde Ertaineko gerra Europara helitzen dabil, baina, beste alde batera begiratzen du Europak.

Zerbait esan beharko du, baina, Europak. Azken proposamena izan da etorkinak dakartzaten ontziak bonbardatzea. Itsa-sontziak kendu, urperatu eta etorkinen arazoa konponduko da. Hori da okurritu zaien kirtenkeria eta krimena!

### Udaberri Arabiarrazagaz ere lotu dute.

Lotura bakarra leku berean gertatzen dabilela da. Udaberri Arabiarra demokrazia sentimendu bat zen; eta, azkenean, (Tunisia izan ezik) berdin edo txarrago –Libian, Sirian eta Egipton– amaitu dute.

### Al-Qaeda eta EI banatuta daude orain.

Bai, eta aurrez aurre. Elk erabilitako indarkeria gehiegizkoa iruditzen zaio Al-Qaeda; mundu musulmanaren irudiaren kalterako dela diote. Gainera, estrategikoki, militarri, oso ikuspuntu desberdinak dituzte: Al-Qaeda mundura zabaldu du jarduera; Elk han egiten du borroka, apurka-apurka mugimendu horren lidergoa aitortu dioten arren, Libian, Egipton, Afganistanen, Filipinan... Al-Qaeda ez bezala, lurralde bat okupatzen du: Siria ekialdeko zati handiena eta Irak iparraldearen gehiengoa (200.000 m<sup>2</sup>-tik gora). Boteretsua da, eta epe luzerako estrategia du: estatu bat sortzen dabil.

### Bere indarra Ekialde Ertainean dago.

Duda barik. Bere indarraren %99 Sirian eta Iraken dago. Bere borroka xiiten kontrakoa da; *Charlie Hebdo* aldizkariaren kontrako erasoa eta tankerako beste ekintza batzuk euren izenean aldarrikatu dituzten norbanakoenak dira. Elren indarra han dago. Horrek egiten du arriskutsu. AEBek ere aitortu dute ez dutela aurkitu horrelako gaitasun ekonomikoa, logistikoa eta estrategikoa duen erakunderik: 20.000 atzerritar baino gehiago daude eurekin, europar eta estatubatuar. Zabaldutako bideoetan agertutako sarraskiekin erakartzen dituzte gazteak.

### Harritu egiten du horrek.

Gu bai, baina hemen ez dira oso pozik biziko. Espainiako gerrara milaka gazte etorri ziren, Estatu Islamikoaren kontrako balioek bultzatuta. Hori berori maila orokorragoan egin dezakete: islamaren borroka da mendebaldearen kontra; gurutzatuen –AEBak, Britainia Handia, Frantzia...– kontra. Gu beldurtzen gaituenak beste batzuei adorea ematen die.

### Islamofobia existitzen da?

Irailaren 11ko atentatuen ondoren, baietz esango nuke. Ez hainbeste Espainian: sentimendu antimusulmana eskuin muturraren ingurura mugatu da. Baina ez da pentsaezina. Alemanian, Britainia Handian eta AEBetan sortu da horrelako sentimendu bat. Kontzeptu arazo bat da, arrazakeria, eta ez informazio falta.

# ABADIÑO EKINEZ EGINA



**IÑAKI REKALDE**  
ABADIÑOHO HAUTAGAI

**ENEKO ETXEBARRIA**  
ABADIÑOHO ALKATETZARAKO HAUTAGAI

**MAITANE MARTÍNEZ**  
ABADIÑOHO HAUTAGAI

## #1 Gure baliabideak egokituko ditugu suspertze ekonomikoa bultzatzeko

Abadiñon kokaturiko enpresen artean loturak sortuko ditugu gure herriko biztanleek enplegua errazago aurki dezaten. Ekimen komertzial berriak aurrera eramateko laguntzak ere martxoan jarriko ditugu. Udako lan-burtsak suspertuko ditugu haiek herritarrei zuzenduz.

## #2 Aparkaleku gehiago sortuko ditugu eta baita aisialdirako estalitako guneak

Zelaieta eta Matienako herriguneetan ibilgailuen trafikoa berrantolatuko dugu. Doako aparkalekuak sortuko ditugu. Matienako herriguneko kamioien trafikoa ezabatuko dugu. N634-ra irteera zuzen bat sortuz. Sarbideak habetuko ditugu traba diren aztopa arkitektonikoak ezabatuz. Gazteboen aisialdirako eremu estaliak ere sortuko ditugu.

## #3 Gaztediaren garapeneren eta bere etorkizunaren alde egingo dugu

Gazteleku baten sorrera sustatuko dugu. Udaletxeko gazte sailak kudeatuko duena. Abadiñoko gazteen beharraz zuzenean erantzuteko. Gainera, gazteentzako alokatzeko etxebizitzak bultzatuko ditugu. Etxebideren ASAP programaren bitartez.

## #4 Kirol jarduerak sustatuko ditugu, hauetarako instalazioak handituz eta kirol jardueren eskaintza areagotuz

Herrian kirola sustatzeko kirol egitarau bat sortuko dugu. Astaloko kirolgunea berregituratuko dugu, instalazioak berrituz, aldagelak handituz eta rokadromo bat eta padel pistak sortuz. Mundu guztia erantzeko kirol eskaintza handituko dugu eta baita Eskola Kirolekoa ere bai. Era berean, gazteentzako eta langabetuentzako beharpenak proposatuko ditugu haiek erreztasun handiagoak izan ditzaten kirol instalazioak erabiltzeko.

## #5 Euskara gure nortasunaren ikur gisa

Gure hizkuntzen erabilera indartuko dugu administrazioaren eta herritarren artean. Literatura eta ikus-entzunezko euskarazko ekarpena bultzatuko dugu. PYMES eta autonoentzako doako aholkularitza indartuko dugu, gure hizkuntzaren erabilera normalizatzeke helburuarekin. Saltokien errotauzioa euskeraz egin dezaten laguntzak ere ezarriko ditugu, eta gure herriko elkarte kulturelekin burubelari lan egingo dugu.



EMAN BOTOA



HACER CRECER **EUSKADI** HAZI ARAZI

## Inmobiliariak

**AMBOTO**  
INMOBILIARIA  
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

**ISD** Inmobiliaria  
del Duranguesado  
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666  
[www.inmoduranguesado.com](http://www.inmoduranguesado.com)  
inmoduranguesado@gmail.com

**AGENCIA INMOBILIARIA**  
**Fernando Uribe**  
Barrenkalea, 15 behea • 946 816 423  
48200 DURANGO • Bizkaia

**ETXETXO**  
G. INMOBILIARIA  
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO  
[www.inmoetxetxo.com](http://www.inmoetxetxo.com)

### ETXEBIZITZAK ALOKAIUAN

- BERRIZ: 3 logela, jantzia, berogailua eta igogailua. 500.
- DURANGO: 1 eta 3 logelako etxebizitzak alokagai. 550 euro hileko.

### ETXEBIZITZAK SALGAI

#### DURANGO

- MIKELDI: 3 logela, sukaldea balkoiarekin, komun 2 eta egongela. Ganbara eta garajea. Berriztua.
- FRANTZISKO IBARRA: 4 logela, komun 2, sukaldea, despentsa eta egongela balkoiarekin.
- MURUETATORRE: 3 logela, komun 2, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Garajea eta trastelekua.
- KALEBARRIA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. 125.000€
- ARTEKALEA: 8 etxebizitza eraikitzen. Logela 1 eta 2koak. Trastelkuarekin. 128.000€tik aurrera.
- ERDIALDEAN: 123 m2. Etxe osoa kanpora begira dago. Berrizteko. Inguru onean kokatua.
- ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. Logela 2, komun 2, sukalde amerikarra eta egongela. Garaje itxia eta terraza izugarriak.

#### ATXONDO

- 3 logela, komun 2, sukaldea eta egongela. Etxe osoa kanpora begira dago. 3 balkoi. Garaje itxia.
- 3 logela, komun 2, sukaldea esekitokiarekin eta egongela. Etxe osoa kanpora begira dago. Garajea eta trastelekua. Berria ematen du.

#### LEKEITIO

- 3 logela, komun 2, sukaldea eta egongela terrazarekin. Garajea. Auzune pribatua. Igerilekua eta frontoia.

#### ABADIÑO

- ITURRITXO: Logela bakarreko apartamentua. Sukalde amerikarra-egongela, komun 2 eta esekitokia. Ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.

#### ZALDIBAR

- 3 logela, komun 2, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Guztiz berriztua. Trastelekua.

### LURSAILAK SALGAI

#### ABADIÑO

- Bi familiako etxebizitza eraikitzeko 1.100 m2-ko lursaila salgai. Inguru egokia.
- Bi familiako etxebizitza eraikitzeko 1.100 m2-ko lursaila salgai. Informazio pertsonalizatua.

#### BERRIZ

- 10.000 m2-ko lursaila. Sarbide ona.

#### MATIENA-ABADIÑO

- 2.000 m2-ko lursaila. Laua eta fruta-arbolekin.

#### IURRETA

- 5 hektareako lursaila. Abeletxe bat egiteko aukera dago.

#### DURANGO

- Lursail erdia familia biko etxebizitza eraikitzeko. Proiektua barne.

#### EUBA

- 3.000 m2-ko eta 3.455 m2-ko lursailak. Lurzati 2, bakoitzean bi familiako etxebizitza eraikitzeko aukerarekin.

#### ZORNOTZA

- LARREA: 27.000 m2-ko lursaila.

### BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

- ABADIÑO. Gaztelua: Baserría. Sarreran arku ederrarekin. 20.000 m2-ko lursaila baserrí ondoan.
- BERRIZ: 1.200 m2-ko lursaila. Txaleta. Abeletxe kalean. 4 logela, 3 komun, sukaldea eta egongela. Garajea.

### ETXEBIZITZAK SALGAI

#### F.J. ZUMARRAGA



- 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta komun 2. Balkoi 2. Berogailua eta igogailua. Ganbara. **225.000€.**

#### MURUETATORRE



- 3 logela, egongela, sukaldea eta komun 2. Balkoia. Garajea eta ganbara. **219.000€.**

#### ASKATASUN



- Logela 2, egongela, sukalde jantzia, komun 2 eta balkoia. Iturgintza eta elektrizitate instalazio berriak. Hari musikala etxe osoan. Teilatua, fatxada eta igogailua eginda ditu. **210.000€.**

#### PINONDO



- 67 m2. Ikuspegi ederrak. Etxe osoa kanpora begira dago. Balkoi itxia. 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta komun 2. Berogailua. Igogailua. Bizitzen sartzeko moduan. **195.000€.** **Prezio negoziagarria.**

#### IPARRAGIRRE



- Orientazio ezin hobea. 3 logela, egongela, sukaldea eta komun 2. Balkoi 2. Ganbara. **180.000€.**

#### F.J. ZUMARRAGA



- 4 logela, egongela handia, komun 2 eta sukalde handia. Balkoia. Igogailua. **145.000€.**

[www.inmoduranguesado.com](http://www.inmoduranguesado.com)

### ETXEBIZITZAK SALGAI

- ANDRA MARIA: Halla, sukaldea, jangela, egongela, 2/4 logela eta komun 2.
- ARAMOTZ: Halla, 4 logela, sukaldea, egongela eta komun 2.
- ARTEKALEA: 1/4 logela, sukaldea, egongela eta komun 2.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 3/4 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Garajea eta trastelekua.
- ASTOLABIDE: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2.
- LANDAKO ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoi 2. Garajea eta trastelekua.
- BARRENKALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoia.
- ERROTARITXUENA: Logela 2, sukaldea, egongela eta komun 2. Terraza 2. Garajea aukeran eta trastelekua.
- ERRENTXU: 4 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoia. Garajea aukeran.
- EZKURDI: 4 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Garajea aukeran eta trastelekua.
- EZKURDI: 5 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta 3 komun. Terraza. Trastelekua.
- EZKURDI: 3 logela, sukaldea, egongela, komun 2 eta bainugela.
- F.J. ZUMARRAGA: Halla, egongela, egongelatxo, sukaldea, 3 logela eta komun 2.
- FRANTZISKO IBARRA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoia. Garajea aukeran.
- GALTZARETA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoia. Garajea eta trastelekua.
- IBAIZABAL AUZUNEA: Logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Garajea.
- JUAN ITZIARCO: Logela 2, sukaldea, egongela, komun 2 eta despentsarekin.
- JUAN ITZIARCO: Logela 2, sukaldea, egongela eta komun 2. Lursailarekin.
- JUAN MARI ALTUNA: Logela 2, sukaldea, egongela eta komun 2. Garajea eta trastelekua.
- KIRIKIÑO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2.
- KOMENTU KALEA: 2/4 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Trastelekua.
- MIKELDI: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Garajea eta trastelekua.
- MONTEVIDEO: Logela 2, sukaldea, egongela eta komun 2.
- MUGARRA: 3 logela, sukaldea, egongela, komun 2 eta bainugela. Balkoia. Trastelekua.
- PLATERUEN PLAZA: 4 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Garajea.
- SAN AGUSTIN: 5 logela, sukalde-jangela, egongela eta 3 komun.
- SAN INGAZIO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Garajea eta trastelekua.
- SASIKOA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoia. Garajea eta trastelekua.
- SASIKOA: 4 logela, sukalde-jangela, egongela eta komun 2. Balkoia. Trastelekua.
- TABIRA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Lokal komertziala.
- TABIRA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Garajea eta trastelekua.
- UNDATORRE: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2.

#### ABADIÑO

- ANDRA MARI: 3 logela, sukaldea, egongela, komun 2 eta bainugela. Despentsa. Balkoia.
- ARLOZABAL: Logela 2, egongela, sukaldea eta komun 2. Garajea eta trastelekua.
- ZELETABE: Berrizteko.

**Etxebizitza gehiago salgai Matienan, Abadiñon, Berrizen, Zaldibarren eta Otxandion, besteak beste.**

### AUKERA

- F.J. ZUMARRAGA: 3 logela eta egongela. Terraza. Eguzkitsua. 120.000€.
- ARAMOTZ: Logela 2. 85.000€.
- ANTSO ESTEGIZ: 99 m2. 3 logela eta egongela. 30 m2-ko terraza. Igogailua. 145.000€.
- BERRIZ: 3 logela, komun 2 eta egongela. Terraza. 128.000€.
- MATIENA: 3 logela, egongela eta komun 2. 94.000€.
- ALDE ZAHARRA: 3 logela. Igogailua. 126.000€.

### ETXEBIZITZAK SALGAI

- ASKATASUN ETORBIDEA: 100 m2. 3 logela, komun 2 eta egongela. Terraza 2. Ganbara eta garajea. 260.000€.
- ABADIÑO: 90 m2. 3 logela, 2 komun eta egongela. Terraza. Ganbara eta garaje itxia. 199.000€.
- GARAI: Txalet adosatua. 300 m2. Txokoa. Garajea. Prezio ona.
- SASIKOA: 3 logela, egongela handia eta sukaldea. Balkoia. Ganbara. Garaje itxia aukeran. 206.000€.
- TXIBITENA: 3 logela, komun 2, egongela eta sukaldea. Terraza. Trastelekua eta garaje itxia.
- SAN FRANTZISKO: 3 logela, komun 2, egongela eta sukaldea esekitokiarekin. Terraza. 179.000€.
- ALLUITZ: Apartamentua. Sukalde handia. Ganbara. Eguzkitsua. 147.000€.
- MATIENA: 120 m2. 3 logela eta komun 2. 150.000€.
- LEHENDAKARI AGIRRE: 3 logela, komun 2, sukaldea eta esekitokia. Ganbara eta garajea. 259.000€.
- IURRETA: 3 logela eta egongela. 120.000€.
- M.TORRE: 3 logela, komun 2 eta esekitokia. Terraza. Ganbara. Garajea.
- MIKELDI: 3 logela, komun 2 eta egongela. Terraza 2. Ganbara. 174.000€.
- BERRIZ. B. Gabiola: Erdi berria. 3 logela, komun 2 eta egongela. 180.000€.
- ZABALE: 4 logela, komun 2, egongela, sukaldea eta despentsa. Terraza. Garajea.
- ARANDONOTORRE (musika eskola ondoan): 130 m2. 4 logela, komun 2, sukaldea esekitokiarekin eta egongela. Garajea. Solariuma. Eguzkitsua. Bizitzen sartzeko moduan.
- MONTEVIDEO: 3 logela, komun 2, egongela eta sukaldea. Igogailua. 150.000€.
- PLATERUEN PLAZA: 4 logela, komun 2, egongela handia eta sukaldea. Ganbara eta garaje itxia.
- ATXONDO: 90 m2. 3 logela, komun 2, egongela eta sukaldea despentsarekin. Terraza. Ganbara. Eguzkitsua. 173.000€.
- ANBOTO: 3 logela, komun 2 eta egongela. Igogailua. Berriztua.
- KOMENTUKALEA: 4 logela eta komun 2. Terraza. Garajea aukeran. 186.000€.
- FKO. IBARRA: 3 logela, komun 2 eta egongela. Ganbara eta garajea.

### LOKALAK SALGAI ETA ALOKAIUAN

- DURANGO: 160 m2. Okindegia. Alokagai, erosteko aukerarekin.
- IBAIZABAL: 51 m2. Egokitua. 590€.
- J.M. ALTUNA: 50 m2. Komertziala. 500€.
- PARKEAN: 60 m2. Frutategia. 600€.
- SAN INGAZIO: 125 m2. Erakusleihu handia izkinan. Salgai/alokagai.
- SASIKOA: 60 m2. Egokitua. 600€.

**LOKALAK ETA ETXEBIZITZAK ALOKAIUAN. KONTSULTATU.**  
[www.inmoetxetxo.com](http://www.inmoetxetxo.com)



# AGENDA

ANBOTOKo agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi [agenda@anboto.org](mailto:agenda@anboto.org) helbidera edo deitu **94 623 25 23** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



Maiatzaren 15ean, 22:30ean,  
Elorriko gaztetxean

## Osso + Smoke Deluxe

Abiadura biziko eta indar handiko rock doinuek beteko dute Elorriko gaztetxea, gaur. Haritz Leteren eta Sergio Ruizen Osso, eta Smoke Deluxe taldea gonbidatu dituzte Elorri zuzenean jotzera. 'Paraxuta' lehenengo diskoa aurkeztuko du Ossok, eta taldearen bigarrena den 'Rock You All' Smoke Deluxe laukoteak.

## Antzerkia

### :: DURANGO

MAIATZAREN 15ean eta 16an

20:00etan, 'Fig Konparsilla', eta, 22:00etan, 'Klink', San Agustin kulturgunean.

### :: ELORRIO

MAIATZAREN 22an

22:00etan, 'Happy End', Arriolan.

### :: ZORNOTZA

MAIATZAREN 17an

17:00etan, Zugan Ni jaialdia, Zornotza Aretoan.

## Musika

### :: ABADIÑO

MAIATZAREN 16an

19:00etan, Consaepum + Khantoria, Urkilako elizan.

### :: BERRIZ

MAIATZAREN 15ean

22:00etan, Stinky Bollocks + LionHead, gaztetxean.

MAIATZAREN 16an

20:00etan, Kherau, Andikoako basilizan.

### :: DURANGO

MAIATZAREN 21ean eta 22an

18:30ean, Soinua eskolakoak San Agustin kulturgunean.

### :: ELORRIO

MAIATZAREN 15ean

22:30ean, Osso + Smoke Deluxe, gaztetxean.

### :: ZORNOTZA

MAIATZAREN 15ean

20:00etan, 'Torreburutik mundura', Xabier Amurizaren bertso-poesia, Dudeako San Migel ermitan.

MAIATZAREN 17an

12:15ean, Leos Janaçek ganbera orkestra, Andra Maria elizan.

## Jaiak

### :: ABADIÑO (Santrokazak)

MAIATZAREN 22an

22:30ean, Anje Duhalde, probalekuan.

MAIATZAREN 23an

10:30ean, Gaztelurako kronoigoera korrika eta bizikletan, hilerritik Gaztelutontorrera.

12:30ean, kalejira herritik ezkontideekin. Ondoren, ezkontza, Ferialeku plazan.

14:30ean, herri bazkaria, Ferialeku plazan. Ondoren, trikitalariak eta txistulariak.

18:00etan, Eskuz Binakako San Trokaz Pilota Txapelketako haurren finala, pilotalekuan. Ondoren, kadete eta 22 urtez azpikoen binakako finalak.

20:00etan, Tximeleta taldeagaz erromeria, Txanporta plazan.

23:00etan, Pasajero + Zea Mays, Txanporta plazan.

MAIATZAREN 24an

11:00etatik 14:00etara, umeentzako tailerrak, Ferialeku plazan.

17:00etan, kalejira, Talde Batuak-eko umeekin.

19:30ean, txokolatada, Txanporta plazan.

20:00etan, Gerbasi agur, eta jaien amaiera.

## Berbaldia

### :: DURANGO

MAIATZAREN 21ean

19:00etan, 'Los castillos medievales y los poblados fortificados de Álava y Treviño', Juan Antonio Quirosen eskutik, Arte eta Historia Museoa.

### :: IURRETA

MAIATZAREN 20an

18:30ean, 'Trilogía del Baztan: la sombra de la maternidad', Josune Muñozen eskutik, Ibarretxen.

## Dantza

### :: ELORRIO

MAIATZAREN 17an

18:00etan, Aiko erromeria taldea, Plateruenean.

## Lehiaketa

### :: IURRETA

EKAINAREN 19ra arte

San Migel jaietako kartela aukeratzeko lehiaketa. Informazio guztia: 'www.iurretakoudala.net'.

### :: ELORRIO

EKAINAREN 30era arte

Ferixa Nausiko jaien kartel lehiaketara lanak aurkezteko epea. Lehiaketaren oinarriak: 'www.elorrio.net'.

### :: ZALDIBAR

MAIATZAREN 22ra arte

Jaietako kartela aukeratzeko lehiaketa. Maiatzaren 22ko 15:00ak arte aurkeztu daiteke udaletxean.

## Zinema

### :: BERRIZ

MAIATZAREN 15ean, 22:00etan, eta MAIATZAREN 17an, 19:00etan

'La fiesta de despedida' Kultur Etxean.

## Kontalaria

### :: DURANGO

MAIATZAREN 16an


11:30ean eta 12:15ean, 'Around the world', umeentzako ipuin kontalaria ingelesez, Udal Liburutegian.

## Ikastaroa

### :: ABADIÑO

EKAINEN ASTELEHENETAN

17:45etatik 20:15era, Clown ikastaroa, Mariano Di Francoren eskutik, Errota kultur etxean. Izen-ematea, 'clownlunes@gmail.com'.



## :: DURANGO | ZUGAZA

### Mad Max 2D

- barikua 15: 19:30/22:00
- zapatua 16: 19:30/22:30
- domeka 17: 19:00/21:30
- astelehena 18: 18:30/21:00
- martitzena 19: 20:00

### Asterix. Jainkoen egoitza

- zapatua 16: 17:00
- domeka 17: 16:45

### 2. ARETOA

### Mad Max 3D

- barikua 15: 22:00
- zapatua 16: 22:30
- domeka 17: 21:30
- astelehena 18: 21:00

### Lo mejor de mi

- barikua 15: 19:30
- zapatua 16: 19:30
- domeka 17: 19:00
- astelehena 18: 18:30
- martitzena 19: 20:00

### Minúsculos 2D

- zapatua 16: 17:00
- domeka 17: 16:45

## :: ELORRIO | ARRIOLA

### El último lobo

- zapatua 16: 22:00
- domeka 17: 20:00
- astelehena 18: 20:00

## :: ZORNOTZA | ZORNOTZA ARETOA

### La familia Belier

- zapatua 16: 20:15
- domeka 17: 19:30/22:30
- astelehena 18: 20:00
- martitzena 19: 20:15

## Maiatzaren 16an, 20:00etan, Berrizen

### Kherau, Andikoako basilizan

Andikoako basilizan joko du Kherau taldeak, bihar. Berrizko Kultur Etxean antolatzen duten Tren Geltokiko Musikariak zikloaren barruko kontzertua da Andikoakoa. Folk akustikoa eskainiko du boskoteak: taldearen bigarrena den 'Aukhera' diskoa aurkeztuko dute Bilboaldeko musikariek, Berrizen. Musika tresna tradizionalak baliatzen dituzte Kheraukoek, baina ez dituzte doinu tradizionalak bakarrik sortzen: doinu tradizionalak rock eta pop estiloagaz josten dituzte.



**> BOTIKAK**

**BARIKUA, 15**  
09:00-09:00

**De Diego**  
Inixaurren 22 - Durango

**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

**ZAPATUA, 16**  
09:00-09:00

**Campillo**  
Montevideo etorb. 24 - Durango

**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

09:00-13:30

**De Diego**  
Inixaurren 22 - Durango

**Gaztelumendi**  
J.A. Abasolo 2 - Durango

**Sagastizabal**  
Askatasun etorb. 19 - Durango

**Unamunzaga**  
Muruetatorre 2C - Durango

**Balenciaga**  
Ezkurdi plaza 8 - Durango

**Navarro**  
Artekalea 6 - Durango

**Bazan Diaz**  
Uribarri 5 - Durango

**Irigoi**  
Bixente Kapanaga 3 - Iurreta

**Bartolome**  
Gabiola 2 - Berriz

**Larrañaga-Balentiaga**  
Berrio-Otxoa 6 - Elorrio

**Iruarrizaga, Karnele**  
San Miguel 15 - Zornotza

**Melero, Rosa Mari**  
San Pedro 31 - Zornotza

09:00-22:00

**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

**DOMEKA, 17**  
09:00-09:00

**Gaztelumendi**  
J.A. Abasolo 2 - Durango

**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

**ASTELEHENA, 18**  
09:00-09:00

**Mugica**  
Andra Maria 9 - Durango

**Iruarrizaga, Karnele**  
San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

**MARTITZENA, 19**  
09:00-09:00

**Irigoi**  
Bixente Kapanaga 3 - Iurreta

**Iruarrizaga, Karnele**  
San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

**EGUAZTENA, 20**  
09:00-09:00

**Unamunzaga**  
Muruetatorre 2C - Durango

**Iruarrizaga, Karnele**  
San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

**EGUENA, 21**  
09:00-09:00

**Exebarria**  
Montevideo etorb. 2 - Durango

**Iruarrizaga, Karnele**  
San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

**Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)

**> ZORION AGURRAK**

✉ zorionak@anboto.org  
eguaztieneko 14:00ak arteko epea



> Zorionak **Amaiatxu!** Danon partez mosu handi-handi bat!



> Zorionak **Angel** prest-prest dago jantzita bere urtegunerako: domekako arrokekin, eguena izan arren. Zorionak!



> Zorionak, **Naia!** Urtegun zoriontsua pasa ezazu familia osoaren partez!



> Maiatzaren 16an gure poxpolin alaiak 4 urte beteko ditu. Zorionak **Maia!** Musu, musu eta musu familia osoaren partez.



> Maiatzaren 18an Euskal Herriko neskarik politenak urteak beteko ditu. Zorionak amatxo! Naroaren partez.



> Maiatzaren 16an **Ametsen** 10 urte beteko ditu, justu bere jaunartze egunean. Zorionak etxeko printzesari etxekoan partez.



> Maiatzaren 16an, gure etxeko dantzariak, aizkolariak... 6 urte beteko dauz. Zorionak!



> Zorionak! Zure 90. urtebetetzean. Azkenean bai, azkenean familia osoarekin ospatuko dugu.



> **Juanmik** maiatzaren 15ean 48 urte beteko ditu. Zorionak familiaren partez. Ondo pasa eguna!



> Maiatzaren 18an gure etxeko sorginek 6 urte beteko dauz, zorionak! Osaba Inigori be zorionak!



> **Nagorek** maiatzaren 15ean 23 urte beteko ditu. Zorionak danon partez eta ondo pasatu!




> Zorionak bihotza lapurtu zidan munduko neska politenari; asko maite zaitut.



> Zorionak, **Arkaitz eta Ane!** Etxekoan partez ondo pasatu larunbatean, zuen egunean.



> Maiatzaren 14an **Aitorrek** urteak beteko ditu. Zorionak etxekoan partez. Eta 16an ezkontza urteurrena: zorionak biori!



> Zorionak **Andoni eta Joseba!** Ze majo ipini zaretzen zuen urtebetetzerako! Maiatzaren 15erako pastelak eskatzen, ezta?



> 100 urte badira jaiotzetik, nortasuna agerian ordutik, zure familikoek ez dabe inoiz aurkitu antzekorik.

Jose Antonio Agirre, 4  
946 200 869  
Avda. Montevideo, 1  
946 204 383

> Zorionak **Naia Rekalde!** Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeke txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.

# ATE IREKIAK

## Maiatzaren 23an 11:00etan

**MGEP**  
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA  
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S. COOP

**Mekatronika Industrialia**  
Robotaren muntaiaz eta mantentzeaz arduratzen dira

**Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa**  
Robotaren atalak eta piezak fabrikatzen dituzte

**Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak**  
Robotaren instalazio elektriko eta elektronikoaz eta energia hornitzeaz arduratzen dira

Jakinarazi etorriko zarela! 943 71 21 91

# “Thailandian geundela, Durangora bizikletaz itzultzea otu zitzaidan”

Zeelanda Berrian txokolategi batean lan egin zuten eta orain Durangon txokolategi propioa zabalduko dute

**> AKUILUA** Martxel Zubia Txarli Garcia de Cortazar durangarra da, baina hamahiru bat urtez munduan zehar bidaiatzen ibili da. Bidaiatzen zebilela, Ana Queija argentinarra ezagutu zuen, eta hortik aurrera bidaiak guztiak batera egin dituzte.

1990eko hamarkada amaieran joan zinen Hego Amerikara. Zein zen zure hasierako plana?

Nire plana lehenengo Mexiko ezagutzera zen; garai horretan Chiapas nahiko modan zegoen, eta hainbat lagun eta ezagun nituen han. Argentinan bizi izan zen lagun batek hitz egin ondoren, Argentinara joatea erabaki nuen herrialdea ezagutzera.

Hainbat herrialde ezagutu eta gero, El Chalten herrian geratzea erabaki zenuen.

Argentina ezagutu nuenean, turismoan lan egiten hasi nintzen, eta bertan ateratako diruagaz Peru, Ekuador, Bolivia eta Kolonbia ezagutu ahal izan nituen. Gero, berriz ere Argentinara bueltatu nintzen, eta urte batzuk pasatu nituen bertan, turismoaren munduan lan egiten.

Patagonian Ana ezagutu zenuen, eta, ondoren, Zeelanda Berrira bidaiatu zenuten, ingelesa ikastera.

Orain nire emaztea den Ana ezagutu nuen. Ondoren, Zeelanda Berrira joan ginen ingelesa ikastera, bertan, Patagonian, ia turista guztiak eu-

roparrak edo estatubatuarrek direlako, eta ingelesa jakitea ezinbestekoa delako. Azkenean, hiru urtez geratu ginen han: hasieran, txokolategi batean egin genuen lan; eta, ondoren, ingelesa ikasi nuenean, glaziarretara joan nintzen, turismoan lan egitera.

Thailandiara eginiko bidaiak batean Durangora bizikletan bueltatzea okurritu zitzaizun.

Zeelanda Berritik nahiko hurbil geratzen zitzaizkigun bidaiak egin genituen: Samoa, Thailandia... Thailandian oporretan geundela, Durangora bizikletaz itzultzea otu zitzaidan, eta Anari proposatu nion. Anak ez zekien zer zen bizikletan bidaiak bat egitea, ez zuelako

horrelakorik sekula egin, baina bi aldiz pentsatu gabe baietz esan zidan. Shanghaira hegaldi bat hartu genuen, eta han hasi ginen pedalei eragiten, Durangoraino.

Shanghain hasi zenuten bueltako bidaiak. Nola planteatu zenituzten etapak?

Hasierako plana Mongoliara pasatu, eta Mongoliatik Errusiara joatea zen; baina Errusian esan ziguten bakoitzak bere herrialdean egin behar zuela bisa, eta, horregatik, bidaiak plana aldatu egin genuen. Txina, Kirgizistan, Uzbekistan, Iran, Armenia, Georgia eta Turkia igaro, Europara sartu, eta Euskal Herrira heldu ginen.

16.000 kilometro inguru dira herrialde batetik bestera egin zenituztenak; zenbat denbora behar izan zenuten ibilbidia egiteko?

Hamaika hilabete behar izan genituen. Egunero ez ginen ibiltzen bizikletan, baina, azken finean, presiopean zauden bisak direla-eta. Herrialde batzuetan bost egun besterik ez dizkizute uzten herrialdea zeharkatzeko, eta 600 kilometro egin behar dituzu herrialdeetik irteteko. Horregatik, 100 kilometro baino gehiago egitera behartuta geunden egunero.

Hamahiru urtez bidaiatzen ibiltzeko diru asko beharko da, ezta?

Bai. Herrialdeetako bisak lortzeko soilik diru asko ordaindu behar izaten da, eta askotan polizia ere ordaindu behar izaten zaio.



## LAUHORTZA

**JUANITO GALLASTEGI**

Abadea



### Bota, eta nasai!

Idatzi ete neike nik, nasai-nasai, egia biribila dinodalakoan, “kazetaria edo, bardin dana, guzurtia...”? Ni ezetz nago, eta jakin dakit, gainera, bada-gozala kazetari guzurtiak, baina ezin daitekezala bardindu, ezelan be, kazetari izatea eta guzurtia izatea. Ete dagozan, ba, kazetari egiazaleak eta jatorrak!

Zerrenda luzea jarri geinke: Bardin ete da alemana izatea eta nazia izatea? Lekutan dagoz bata besteagandik!

Bardindu ete leike euskalduna izatea, eta baita abertzalea izatea be, ETAKoa izateagaz? Danok dakigu ezetz.

Gauza bera ete da musulmana izatea eta hiltzailea izatea, edo judegua izatea eta lukurreru eta herri-zapaltzaile izatea? Zor-roa izan behar hori uste izateko!

Zerrenda luzea jartzen jarraitu geinke.

Baina, jakina! Katolikoa, katolikoa danez, atzeratua, konterbadorea, muturreko eskuma-eskumakoa, emakumeen garapenaren aurkakoa... da. Txitean-pitean eta nasai-nasai idazten da holakorik, bardinketa ustel hori eginaz, bereizketa txikienik barik.

Ez litzateke txarto egongo bereizten jakitea edo bereiztu gura izatea.

Bai gagozala fededunen artean –erakunde guztietan lez!– atzerakoiak, matxistak eta abar luze bat. Eta jakina dagozala aldakorrak diran gauza asko eta aldatu beharreko gauza asko fededunen alkartean!

Baina hortik bardinketa hori egitera milaka kilometro dagoz! Eta bardinketa hori egia biribila balitz lez egiteak edo borondate txarra edo ezjakinkeria adierazoten dau.



**maristak**

Ikastetxea - Durango

etorkizun oso bat

www.maristak.com



**Aurrematrikulak Zikloak**  
Maiatzaren 25etik ekainak 5era

Batxilergoa, Goi-Mailako Heziketa-Zikloak, Erdi-Mailako Heziketa-Zikloak, Oinarriko Lanbide Heziketa, Ziklotarako Sarbide Proba, Enplegurako Formakuntza



**Ezagutu nahi bagaituzu, deitu eta zita bat eskatu!**